



Herriko bestak

Urdazubi, Irurita → 11-17

IGANTZI → 23

Udaberriko bestak apirilaren 30etik maiatzaren 3ra

DONEZTEBE → 28

Udaberriko FERIA maiatzaren 8an

GOIZUETA → 35

Bigarren Goizutrail lasterketa maiatzaren 16an

KIROLA → 48

Txirindularientzako hitzordu ugari maiatzean

GAZTELU | 1936ko Gerra Zibila

Diotenez, 1936ko gerra hasi eta egun guttira, haurdun zegoen Juana Josefa Goñi eta honen sei seme-alaba gazteenak Legarrea zulutik bota zituzten. Haiek nola-koak ziren aintzat hartuz egin duten irudia da hau. Gaiaz ez da aunitz solastu, baina Jose Mari Esparza editoreak liburua idatzi du horren inguruan. Zer errana emanen duen liburua, dudarik gabe.

ERREPORTAJEA → 6-7



Gazteluko leizearen misterioa argi bila

ILUSTRAZIOA:
MARTINTXO ALZUETA



ELKARRIZKETA → 5

XVI. mendetik hasi eta gaur arte, Saldiasko etxe guztien zuhaitz genealogikoak egin ditu Martin Urrutiak.



HAUTESKUNDEAK

Herriz-herri maiatzaren 24ko udal hauteskundeetara aurkeztu diren zerrendak bildu ditu TTIPI-TTAPAK. Igantzi da talderik aurkeztu ez duen udalerrri bakarra. Bertizaranan ere ez dute kontzejak berritzeko zerrendarik aurkeztu.

ZOKKETAK → 56



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra



Summer Camp Uztaila
4 - 12 urte bitarteko haurrak

	astelehena	asteartea	asteazkena	ortzeguna	ortzirla
8:00 11:00	English class	English class	English class	English class	English class
11:15 11:30	Break (ekarri hornaketakoo)				
11:45 13:00	Aurkezpen-jokoak	Hornaketa irakaskuntza	Antzezpen-jolasak	Jolasak	Musika
13:00	eskulanak Land art	Hitz eta jaurrian jolasa	igerilekua	eskulanak argazkierkin	Jolasak Bazterreko erakundearen jolasa



Udako ikastaro trinkoak helduentzat eta gaztetxoentzat

Udarako planik bai?



CAMBRIDGE ENGLISH
Language Assessment

Authorised Centre

Eskatu informazioa:

Koskontako bidea, 11 behea - LESAKA Tel. 948 637 135 ePosta: info@acornlanguages.com

Noiz izanen den: Uztaila ikastaroaren iraupena: 2/4 aste Datak: 2015.06.29-2015.07.31 (uztailaren 6tik 10era ibita egonen da, baina egun horiek berreskuratu egingen dira)
Ikastaroaren egitura: 2 orduko ingeles-eskolak, metodo komunikatiboa erabiliz, eta 2 orduko jarduera osagarria **Ordutegia:** 09:30etik 13:30era **Adina:** 4 urtetik 12 urtera. **Talde ttikiak, adinaren eta mailaren arabera banatuta** (4 eta 5 urteko hurrek frantsesa ere aukeratzeko ahal dute). Plaza mugatuak.

HIZKUNTZAK: INGELESA / FRANTSESA / ALEMANA
2 ETA 4 ORDUKO IKASTAROAK
TALDE TTIKIAK, ADINAREN ETA MAILAREN ARABERAKOAK
MAILA GUZIAK
METODO KOMUNIKATIBOA. **SOLASTU LEHENBIZIKO EGUNETIK!**
ERRESERBATU ZURE PLAZA: info@acornlanguages.com Tel. 948 637 135
Etorri gure eskolara eta ahalik eta hobekien aholkatuko zaitugu zure proiektu pertsonalari buruz.

HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN. AUKERATU NON IKASI.
Amets egin: munduko zer tokitan nahi duzu hizkuntza bat ikasi?
Zure ametsa egia bihurtzen lagunduko dizugu

IKASTAROAK ATZERRIAN
16 urtetik aitzinera. Guttenez 2 aste.
Eskatu informazio pertsonalizatua konpromisorik gabe:
info@acornlanguages.com
edo etorri bisitan akademiara.
Prezio bereziak eta Promozioak. Galdetu.

Koskontako bidea, 11 behea LESAKA
948 637 135 www.acornlanguages.com



Ingeles, frantses, aleman, txinera eta euskara ikastaroak
Helduentzat, gaztetxoentzat eta haurrentzat
Hizkuntza ikastaroak atzerrian • Itzulpenak

Koskontako bidea, 11 behea LESAKA
© 948 637 135 www.acornlanguages.com

- Uztailen **ACQRN Summer Camp** Irrisarri Land parkean.
- **9 eta 16 urte** bitarteko gazteentzat, **mantenu osoko** erregimenean.
- **Sorterriko irakasleek** zuzendutako programa. Testuinguruan kokatuta, ingelesa ikasi ahal izanen dute gazteek, **abentura-jarduerek**, dibertsioak eta adiskidetasunak lagunduta.
- Jardueren barruan hauek sartzen dira: jolastokia, abentura-ibilbideak, Zubi Tibetarra eta Tiroлина (14 urtetik goitikoentzat).
- 10 eguneko egonaldiak **3 txandetan**.
- **IZENA EMATEKO EPEA 2015/05/15 ARTE.**



MUSEORAKO MODUKO ZORUA ZURE ETXEAN

Frank Gehry, Jean Nouveau, Calatrava...
Munduko arkitekto ospetsuenek Parklex
erabiltzen dute obra askotan.

Orain, zur naturalez egindako material
hau zure eskura duzu, prezio ezin
hobean.



**PARKLEX
ZORUA
HARITZ
NATURALA
40€/m²**

**ATE IREKIEN
EGUNA !!**

maiatzak 8 // 9.00 - 18.00h
maiatzak 9 // 9.00 - 13.00h

*Zatuz gure zoru berria ezagutzera: kanpoaldean
jartzeko da eta ez du mantentze-lanik behar*



Bere sustraiak eta bere herriarenak hobeki ezagutzeko gogoak bultzatuta, abiatu zuen proiektua duela hamar urte inguru Martinek. Geroztik izen-abizenak, baserri izenak eta

hamaika datu ibili ditu esku-artean. Zehazki, XVI. mendetik hasi eta gaur egunera artekoak. Pixkanaka hariak lotuz, herri guztia jostea lortu arte, Saldiasko etxe guz-

tien zuhaitz genealogikoak egin arte. Lan hau eginda, «dokumentu horiei bizia eman dietela iruditzen zait, beraien biziraupenaren alde lanean ari naizela».

Martin URRUTIA | Saldiasko ikerlaria

«Liburuak aztertzen ez badira datuek balioa galdu eta desagertu litezke»

Eneritz IRAOLA | SALDIAS

Zein izan da proiektuaren abiapuntua?

Betidanik izan dut kulturarekiko interes handia. 14-15 urterekin erabaki nuen hizkuntzak ikasi eta Europan barna ibili nahi nuela eta halaxe egin nuen. Itzultzaile lanetan aritu naiz atzerrian eta lanbideak kulturarekiko nuen interes hori aberastu zidan. Nire sustraiak ezagutu nahi nituen eta erretiroa hartutakoan Saldiasera itzuli eta nire zuhaitz genealogikoa osatzea lehentasuna bihurtu zen. Norbere zuhaitz genealogikoa aztertzen hasitakoan oharitzen zara herritar aunitzek sustrai berak ditugula, senideak gairela. Sakondu beharreko gaia iruditu zitzaidan, egitasmoa haunditzeko premia sumatu nuen eta alimaleko tamaina hartu zuen.

Zein informazio iturri baliatu dituzu?

On Tomas Otxandorena apezak, 57 urtez Saldiasko apaiza izan zenak, baitaiatuen liburuarekin egin zuen aurkibidean oinarritu naiz ni proiektua hasiteko. Bertako datuak aztertu eta hariak lotzen joan naiz gero pixkanaka... baina horretarako Saldiasen jaiotakoekin gain, bertan bizitakoak, emigratu zutenak, heriotza eta ezkontza datuak... ezagutu behar dira. Inguruko herrietako informazioa ere jo behar da



ARGAZKIA: E. IRAOLA

Saldiasko etxe guztien zuhaitz genealogikoa osatu du, duela 400 urteko datuetatik hasita.

saldistar aunitz inguruko herrietara joan direlako bizitzera. Liburu sakramentalak dira iturri baliotsuenak, horiei esker duela 400 urteko datuak esku artean izateko aukera izan dut.

Zein oztopo izan dituzu?

Hutsune ugari dituzte liburu hauek eta horiek osatzeak lan handia eskatzen du. Jaiotzak, heriotzak, bataioak... kontrastatu behar dira. Bilaketak egin eta loturak osatu behar dira gero. Adibidez, 1618tik 1650era, 33 urteko tarte horretan, 210 ume jaio ziren baina bataio liburuetan 71 bakarrik agertzen dira. Anai-arrebak abizen desberdinekin ere ageri dira batzuetan. Edo abizentzat

PROIEKTU IREKIA

«Obra hau ez da inoiz bukatzen, zabalik dago... baditu hutsune batzuk, konfirmatu gabeko datu batzuk eta halaxe agertzen dira. Etorkizunean edozein ikertzailek zabaldu eta zehaztu ditzake datu horiek. Izan ere, lan honek etorkizunean segida izanzen duela pentsatu nahi dut, nik egindakoa proiektu zabal baten zati bat baizik ez dela»

baserriaren izena hartzen dute. Horren ondorioz, datuak bere horretan hartu ezker, hiru familia osatzen dira, baina hariak lotzen joanda oharitzen zara familia bakarra dela egiaz.

Datuen aberastasuna azpimarratzen duzu.

Apaiz askok ez zuten egiten zutenaren ikuspegi historiko bat. Oinarritzko datuak bakarrik jasotzen zituzten. Gerora begira datu horiek herri baten historia jasotzeko orduan duten garrantziaz konturatu gabe. Balio handiko datuak daude adibidez erretore etxe edota Iruñeko artxiboan baina bere horretan gordeta, giltzaperatuta, balioa galtzen dute. Liburuetako

datuak osatu gabe daudenez, analisia, ikerketa eta lanketa behar dituzte.

Zein da zure kezka nagusia?

Munduan zehar sakabanututa dauden miloika dokumentu idatzi desagertzera kondenatuak daude. Dokumentu aunitzekiraungitze-datuak jakiteak kezkatzen nau, behin desagertuta berreskuratzeko aukerarik ez dago eta. Lan hau eginda, dokumentu horiei bizia eman dietela iruditzen zait, beraien biziraupenaren alde lanean ari naizela. Hau ez badu inork egiten datuak hautsak hartzen ditu eta egina badago, pena da berriz egitea. Horregatik, datu basea bukatzen dudanean udaletxean eta Iruñeko artxiboan kopia bana uzteko asmoa dut, etorkizuneko ikertzaileek eskura eduki dezaten.

Proiektu irekia da...

Obra hau ez da inoiz bukatzen, zabalik dago... Ni ahalik eta lanik txukunena egiten saiatu naiz, maila personalean betetzen nauena. Baina baditu hutsune batzuk, konfirmatu gabeko datu batzuk eta halaxe agertzen dira. Etorkizunean edozein ikertzailek zabaldu eta zehaztu ditzake datu horiek. Izan ere, pentsatu nahi dut, lan honek etorkizunean segida izanzen duela, nik egindakoa proiektu zabal baten zati bat baizik ez dela.



Gazteluko Legarrea leizearen sarrera. Zurrumurruek arabera, hemendik bota zituzten Juana Josefa Goñi eta bere sei seme-alaba gazteenak. Eskuinean, berriz, gertatutakoaren inguruan Jose Mari Esparzak egin duen liburuaren azala ageri da.

GIZARTEA → 1936KO GERRA ZIBILA

Zer gertatu zitzaion Gazteluko Sagardia familiari?

1936ko gerra hasi eta guttira, emakume bat eta honen sei seme-alaba gazteenak Legarrea leizetik bota zituztela diote zurrumurruek

Gaiaz gutti solastu bada ere, Jose Mari Esparza editoreak honen inguruko liburua egin du. Gisa

berean, desagertuen familiak zuloa garbitu eta gorpuzkiak atera eta hilerrian lurperatzeko eskatu du.

G. PIKABEA | GAZTELU

1919an ezkondu ziren Pedro Antonio Sagardia Agesta eta Juana Josefa Goñi Sagardia, eta zortzi seme-alaba eduki zituzten: lehenbiziko biak Donamarian eta bertzeak Gaztelun. Gerra Zibileko lehenbiziko egunetan, ordea, 1936ko abuztuaren

30ean, zazpi hilabeteko haurdun zegoen 38 urteko Juana Josefa eta adin ttikiko sei seme-alaba gazteenak, bat-batean desagertu egin ziren. Zurrumurruek arabera, Gazteluko Legarrea leizera bota zituzten.

la 80 urte pasatu dira geroztik, baina ez da auni-

tzik solastu gaiaz. Orain, arte. Jose Mari Esparza editoreak gaiari heldu baitio eta liburua idatzi baitu honen inguruan: *La Sima, ¿qué fue de la familia Sagardia?*.

Esparzak duela 30 urte izan zuen gertatuaren berri, eta 1986an *Navarra 1936, de la Esperanza*

al Terror liburua idatzi zue-nean zerbait aipatu zuen gaiaz. Ordutik izan du arantza hori barrenean, aitortu duenez, «kasua gehiago ez ikertzeagatik sentazio mingotsa». Gero, Iruñeko Epaitegian kasuaren inguruko sumarioa ere deskubritu omen zuten: «Nafarroa osoan 3.000 desagertu baino gehiago izan ziren Gerra Zibilean, eta ez zen sumario bat bera ere ireki. Kasu hau salbuespena izan zen. Irakurri nuenean hunkituta gelditu nintzen, baina gaia alde batera uztea erabaki nuen». Sumario irekitzearena ez zela kasualitatea izan ere azaldu digu, «militarren altxamenduan pertsona erabakiorra izan zen Sagardia jeneralaren familia-koak ziren».

Kontatu digunez, guztia gibelean ez zuen «arrazoi politiko garbirik» ikusi, eta «herritarrentzat gaia tabua» zela ere argi gelditu zitzaion.

Gaiak, halere, editore tafallarraren baitan segitu

izan du beti. Gainera, «desagertuen familiakoak ezagutu nituen, memoria elkarteek ere gaiari sartu nahi zuten, prentsak ere interesa agertu zuten, joan den urteko abenduan Iñaki Indart gazte legasarraren gorpua ere toki horretan agertu zen... Zauria oraindik irekia zegoela ikusi nuenean, liburua idaztea erabaki nuen». Bere hitzetan, «beharbada, idatzi dudana libururik hunkigarriena da». Eta gaineratu digunez, «Gerra Zibilean izandako krimenen artean, Gaztelun gertatutako hau guztietan krudelena eta beldurgarriena izan zen».

ARRAZOI ARGIRIK EZ

Esparzak gertatutakoaren arrazoiak ez ditu argi. «Arrazoi politikoak ez daude garbi. Juana Josefaren koinatua preso zegoen, gorria izateagatik». Lapurretak egitea ere leporatu omen zieten: «senarrak etxetik kanpo egiten zuten lan, mendian.


Aunitz ziren etxean eta barazkiak, patatak, oiloren bat... faltatzen hasi ziren herrian eta eurek hartzen zituztela erratzen da». Emakumeari heritik alde egiteko agindu omen zioten. «Senarrari ere deitu zion, baina ez zioten herrira sartzen utzi eta Guardia Zibialk zortzi egunez preso edukizuen. Tarte horretan, familia herriatik bota zuten eta mendian, txabola batean bizitzen egon ziren. 1936ko abuztuaren 30ean txabola erreta agertu zen, eta ama eta orduan berekin zituen sei seme-alabak zuloa botatuz zituzten». Datu gehiago ere eman dizkigu: «zuloak 50 metroko sakonera du. Seme zaharrenak 16 urte zituen eta alaba ttikienak urte bat eta erdi. Pentsatzea hutsa ikaratzekoa da».

Bertzelako arrazoiez ere aritu zaigu tafallarra: «lekuko guztien arabera, Juana Josefa hagitx emakume ederra zen eta ongi jantzia ibiltzen zen. Guardia Zibialak 'emagaldut' ere deitu izan zion...».

Errudunak aipatzen hasita, «guztiek erruaren zati bat izan zutela» dio Esparak: «batzuk herriatik botatzea adostu zuten eta horiek edo bertze batzuk zuloa botatzeaz arduratu ziren. Baina guztiak isilik gelditu ziren». Hala ere, errudun nagusiak Guardia Zibila bera eta herriko apaiza izan zirela uste du: «guztiaren berri bazekiten eta dena baimendu eta gero dena gorde zutenak beraiek izan ziren». Hamar urte iraun zuen epaiketa bat ere egon zen, hiru aldiz itxi eta ireki zena, eta «inputatutako batzuek bere buruz bertze egin zuten, tentsioa eta egindakoa jasan ezinik».

«GAUZAK KONTATZEA HERRIAREN ZAT ONA DA»

«Hobe da dakiguna azaltzea. Nik dakidana kontatu dut, nahiz eta



mingarria izan». Halaxe deritzo liburuaren egileak. «Nafarroa osoan horrelako gaiak atera dira, eta halako gauzez solastea onerako izan da». Liburuaren helburuetako bat «Gazteluko herriari urteetan izan duen zama hori gainetik kentzen lagun-

tzea» dela erran digu editoreak. «Gaia tabua da, eta okerrera sekretuak gordetzea da. Gaiak normaltasunez hitz egin behar duela konturatu behar du jendeak, gordez gero, belaunaldiz belaunaldi zama hori pasatzen ari baitira. 80 urte ez da inor solastu honetaz, gaur egungo herriarrek beraien aitzinekoek egin edo isildu zutenaren errua izan balute bezala». Aitortu digunez, «liburuak min egingen du, baina zauria sendatzeko min egin behar da».

Bertze helburuetako batek familiaren nahiari

erantzun nahi dio: «desagertu zirenen familiakoek urteetan sufritu dute trauma honekin. Legaria, gaur egun, zabortegegi bat da. Nafarroan Gerra Zibilean pertsonak botatzeko borts leize erabili ziren, eta horien artean hau da garbitu gabe dagoen bakarra. Gainerakoetan gorpuzkiak atera edo ezin bada zuloa tapatu eta biktimenen omenez oroigarria paratu dute. Eta hori nahi du familia, eta Gazteluko hilerrian lurperatzea. Bereirudiko, «iraingarria baita, leizea zikinkeriak botatzeko zulo bat izatea».

AURKEZPENA

Liburuaren aurkezpena maiatzaren 5ean Iruñean egingen dute eta han izanen dira desagertuen familiakoak, AFFAN, Amapola del Camino eta Euskal Memoria erakundeetako ordezkariak, Pako Etxeberria forentsea, liburua argitaratu duen Txalaparta argitaletxeko ordezkariak eta gonbitea onartuz gero, Donamaria-Gazteluko alkatea.

FAMILIAKOEN ESKAERA

Nati ZOZAIA GOÑI | JUANA JOSEFAREN ILOBA ETA HONEN SEME-ALABEN LEHENGUSINA PROPIOA

«Gure familiakoek gorpuzkiak atera eta identifikatzea nahi dugu, eta hilerrian tokia egitea»

Tina, Nati eta Asun Zozaia Goñi Legarrea leizera bota zituzten Juana Josefa eta honen seme-alaben iloba eta lehengusina propioak dira. Beraien ama Petra Goñi Sagardia, sortzez Gazteluko, Juana Josefaren ahizpa zen. Aita, berriz, Ramon Zozaia Uitz, Elgorriagako zuten eta 1936ko kolpe militararekin, Doneztebeko zinegotzia zena, zazpi hilabetez kartzelan eduki zuten. Eta libre utzitakoan, herriatik bota zuten familiarekin. Donostiara egiten zuten alde eta senar-emazteak eta sei seme-alabak Donostian bizitu ziren. Hala, Tina, Nati eta Asunek 1936az geroztik Donostia dute bizileku. 80 urtetik goiti dituzte hirurek; eta Nati gazteenak 83.

Lau urte zituen ezbehar hura gertatu zenean, baina aitortu digunez, «gogoan dut amak aunitz sufritu zuela, negar aunitz egin zuten». Honela azaldu digu: «izeba eta lehengusuak leizera bota baino bizpahiru egun lehenagotik beraiekin egonak ginen. 6 urteko Martinak gurekin gelditu nahi izan



Tina, Nati eta Asun Zozaia Goñi, Juana Josefaren ilobak eta honen seme-alaben lehengusina propioak dira.

zuen, baina aita kartzelan genuenez, gure amak ezin zuela ume gehiago hartu erran zion. Gu ere sei senide ginen. Eta gertatuaren ondotik, pena handia izan zuen ondoan ez hartzeagatik».

Egin zieten «ikaragarria» izan zela dio Nati: «Nafarroan Gerra Zibilean gertatutako guztia beldurgarria izan zen, baina honek dena gairatu zuen. Aita eta lehengusu zaharrena etxetik kanpo lanean ari zirenean, bizirik bota zituzten zuloa, lau tiro baino ez ziren aditu, eta gero, harri eta adarrak ere bota zizkieten gainera».

Onartu digu, «orain arte ez gara mugitu, ez genekien nora jo».

baina garbi du «bitzita osoko trauma» izan dela. Hala, orain «ilusioz» hartu du Jose Mari Esparak egindako ikerketa eta liburu argitaratua. Maiatzaren 5ean Iruñean egingen den aurkezpenean izanen da Nati, bere senide eta seme-alabekin batera, «denok dugulako gaian interesa». Orduan luzatuko dute biktimen lur-emate duina egiteko eskaera eta «hainbertze hamarkadatan familiari eragin dion mina geldiaraztea. Agintari esku-dunek leizea sakonetik garbitu behar dute, eta gure familiakoek gorpuzkiak atera eta identifikatzea nahi dugu, eta Donamaria-Gazteluko hilerrian tokia egitea».



Nire txanda
Ruben GARATE

Udaberria iristean

Udaberria heldu, aste santua pasa eta berrogei egunen buruan iristen aunitzentzat garrantzitsua den hitzordua. Salbatore bestak ospatzen dira hainbat txokotan, tartean Iruritan. Ez dakigu eguraldia lagun izanen dugun: aterkiaren babesean ibiliko garen edo bero sapari aurre egiteko zerbeza erreserbak agortuko ditugun... baina egia erran, eguraldia ez da traba izanen txupinazoa leheritu ondotik. Bakoitzak ahal duen moduan gozatzea da helburua. Batzuk plazan dantzan ariko dira, berteak tiropitxonean ehizarako abilezia erakutsiko dute... bestoari aurre egiten nahikoa lan izanen dute aunitzek... Iruritako **ezkibelak** irakurriko dugu zuri-urdinez jantzitako karriketan»

«Iruritako
ezkibelak
irakurriko dugu
zuri-urdinez
jantzitako
karriketan»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Hemen gaude, herriaren alde

Ulerzten dut eguneroko lanaz aparte herria gobernatzearen ardura sobera iruditu eta alkategai bakar bat ere ez aurkeztea herriren batean. Ulegarria da herriko gabeziak moldatzeko ideiak eta gogoak izan eta hautagaitza ezberdinetan izen ematea eta, behar bada, herrikoa ez den bakarren bat "fitxatzea"... Baina nork uler ditzake herritar bakarrik gabeko udaletxerako zerrendak?

Nabarmentzekoak



Luciano MITXELENA
Euskal Herriko txapelkun

Master60 kategoriako Euskal Herriko txapelketa irabazi du hirugarren urtez (2012, 2014 eta 2015) Transbidasoa taldeko txirindulari lesakarrak apirilaren 19an Arbizun.



Miren Karnele GOMEZ
Oinez Izarpean gidari

Nafarroa Oinezeko ekimenen baitan Iruñeko Planetarioan egindako Oinez Izarpean ikusizunean gidari izan zen elizondarra, *Jorgito & Iturria gitarra hegalarik* taldearekin batera.



Oier ARIZNABARRETA
Bigarren Beran garaile

Iaz bezala, Durangoko korrikalariak irabazi du aurten ere Berako Mendiko Maratoi Erdian. Ez du iaz egindako marka hobetzerik izan, baina nagusitasunez lortu du garaipena.

Aztera begira

→ 2005.05.06 /
TTIPI-TTAPA 397 zk.



Ramon Latasa handiari buruzko liburua Antton Espelosinek

«Aizkoran aritzeko dohain bereziak zituen fenomeno bat izan zen Latasa, guttitan ateratzen da horrelako aizkolari bat». Horrela definitzen zuen Antton Espelosinek, Sunbillako aizkolari handiari buruzko liburua idatzi eta aurkeztu zuten. Salmentarekin lortzen zen dirua, aizkolariaren izena izanen zuen plazan eskultura bat jartzeko erabiltzeko asmoa zuen eta gaur egun eskultura hori ikusgai dago plazan. Aizkolari handietan handi izan zen, «baina inor ez da perfektua eta igual burua ez zuen behar haina erabili, gehiago erakuts zezakeen. Gero, bazterretik ere dominatu zuten pixko bat», Espelosinek zioenez.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guerediain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztexea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bortziritako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKONA
MEZZENASOGA KULTURA NAFARROA



Kolaborazioak

Demokrazia

Juainas PAUL ARZAK

Dugun egoera ikusita demokrazia deitzen dugun horri buruzko zalantzak ez naute harritzen. Hurbila egingo balitz, arrunta,...Ufa! Eta benetako demokrazia lortuko bagenu? Ezin dut sinistu ere.

Egitez ez da sekula santan gauzatu. Atenaseko garai haietan hiritarren aukera mugatua izan zen, ez-hiritarren eta esklaboen posibilitatetik urrun. Pare bat milurteko joanak, gizarte feudala, estatu modernoaren sorrera eta erregeen absolutismoa ezagutu ondoren, Frantziako iraultzarekin eta gero Ameriketako Estatu Batuak bihurtuko zirenen independentziarekin emakumezkoei, gutxienezko errenta ez zutenei, beltzei eta azal-gorriei ukatu zitzaie botoa ematea, parte hartzea, beti zerako zera hori falta zitzaielako, gutxienezko jakinduria. Hau da: errenta, sexua, azal-kolorea eta jakinduria parekatu zituzten.

Gainditu dugu? Zalantza galantak ditut. Zalantzak ditut geroxeago alderdiak sortu zituztelako, benetako botereen bihotzak, motorrak -dirua eta indarraren kontrolak- gotortu eta, orduan bai, eskubideak ireki zituzten. Diotenez guztiei. Den denak omen gera berdinak legearen aurrean.

Baino boterearen guneak gero eta urrunago daude eta siglaz izendatzen dira -hau da, ez ditugu ezagutzen-, eta modu posible bakarrean funtzionatzen dutela diote. Norentzat?

Hara, aukera gutxi ditugu eta hortik abiatu behar. Hurbil dugunarekin saiatu eta, batez ere urruntzek onartu gabe, alderdikieretan erori gabe -lan galanta- herriko kudeaketak adostu. Zerrenda irekiaren sistema aproposena iruditzen zait, alde batetik, eta bestetik beste ikuspegi dutenek daudela onartzeko modua. Ordea, ingurura begiratu eta ez naiz batere baikor. A zein burrunbak eta amorrak ikusi, entzun ditugu!

Eta aldamenekoekin ez bagara konpontzen ez dugu ahoa hitz handiez betetzerik. Asmoak, eskakizunak, eskubideak, legeak eta berdintasunak ez dira deus guztiontzat ez badira, etsaiak barne. Eztabaida aberasgarria izan daiteke bazterketa bihurtzen ez bada. Eta hori gu geu ez badugu egiten ez dugu teorikoki existitzen ez diren goikoeak kontrolatzeko modurik. Eurena eginez jarraituko dute, beti bezala.

«Aldamenekoekin ez bagara konpontzen ez dugu ahoa hitz handiez betetzerik. Asmoak, eskakizunak, eskubideak, legeak eta berdintasunak ez dira deus guztiontzat ez badira, etsaiak barne»

Nafarren bere buru ukatzea

Pello APEZETXEA

Iduri duenez, norberak bere burua maitatzea da jendearen lehen eginkizuna. Bere burua ezagutzea, bere izaeraz ohartzea, eta zaintzea. Bere buruari lehentasuna eman, modu batera edo bertzera, bai, jende gehienak egiten duela uste dut. Modu batera edo bertzera diot, zeren eta ez baitu beti egoki egiten. Bere buruaren alde jokatzeko, hainbatetan bertzearena gutxiesten baitu, eta bazterten.

Eta hori beharrezkotzat jotzen duelako egiten du. Anitzek ez baitu uste jende guztien eskubideak babesten ahal direnik. Baizik eta zenbat eta gehiago zaindu bertzeenak, orduan eta gutxiago egiten direla norberarenak. Diruarekin eta ondasun materialekin gertatzen den bezala. Kopuru mugatukoak direlako, batek hartzen duena, bertzeari kendu egiten zaio. Horren ondorio dira jendartearen gertatzen diren desberdintasunak, eta zenbaitek oparotasunean bizitzeko aukera du, baina anitzek ezin bizi beharra dauka. Horrela gertatzen dira banazbertze laurogeitabortz urte luzatzen diren bizitzak, eta bortz urtekoa gainditzen ez dutenak.

Ez da, ordea, berdin gertatzen giza eskubide guztiekin. Edota ez luke hala gertatu beharrik. Egia da batzuei ezagutzen zaizkien eskubideak bertze batzuei ukatu egiten zaizkiela. Errate baterako, gaur egun hainbat aldiz gogoratzen diren Ikaskuntza eta osasungintza zerbitzuak. Baina hau ez da nahitaez horrela izan beharrekia.

Nafarrek kultura eta izaera berezia dute. Horren zati bat euskara da. Jimeno Jurío historialariak gogoratzen digu XVI.

mendearen nafar izenak euskalduna erran nahi zuela, eta horrela ziren biztanle gehienak. Gero, mendez mende, hizkuntza hau ahultzen joan ziren, gero eta gutxiago erabiltzen, Gaztelako konkistaren ondorioz nabarmenki.

Eta egoera berezi honetara ailegatu gara: gure Herrialdeko berezko hizkuntza eta izaeraganako estimua neurri handian galtzea. Baina gehiago: gure hizkuntza eta izaera arrotzat eta etsaitzat jotzea, eta beraren kontra jokatzeko. Zera alegia, nafarren aurka ahal dutena egiten ikusten ari gara bertako biztanle anitz, eta bertako agintari anitz, batez ere. Norbera bere burua erabat ukatzen. Hauxe tristezia eta lotsa!

«Gure hizkuntza eta izaera arrotzat eta etsaitzat jotzea, eta beraren kontra jokatzeko. Zera alegia, nafarren aurka ahal dutena egiten ikusten ari gara bertako biztanle anitz, eta bertako agintari anitz, batez ere. Norbera bere burua erabat ukatzen»



Bagoaz, baguzi, bagazi
ttipi-ttapa haziz!

MEKONA

MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Onura fiskala partikularrentzat egindako donazioaren %80 itzuliko zaio errenta-aitorpenean (lehen 150 eurotan), eta %40 kopuru haundiagoko donazioetan.

2015EKO
ERRENTA
AITORPENEAN
BERRESKURATUKO DITUZU



Deitu **948 63 54 58** telefonora edo idatzi **bagoaz@ttipi.eus** helbidera

Prentsatik bildutakoak



«Bai, bertsoak hirutan utzi ditut betiko, eta beti bueltatu egin naiz. Eta, zer? Niretzat gauzak sekulakoak dira, izugarriak, irauten duten bitartean. Eta une batean onak izateari uzten diote. Hirutan bertsoak utzi eta hirutan bueltatu naiz. Gauza oso larria egingen ari naizela irudituko balitzaidake, akaso ez nukeen egingo. Baina ez zait hainbestetako iruditzen, ezta?».

Xabier SILVEIRA
Lesakako bertsolaria
GAUR8 2015.04.11



«Profesionalan egin dudana txapelketarik onena izan da aurtengo eskuz binakakoa, dudarik gabe. Beste urtetan izan ez dudana konstantzia izan dut, baina azken hamar edizioetatik zazpitan finalerdietan izan naiz eta hori ere kontuan hartzekoa da (...) Kaiolan eta buruz burukoan erosoago nago, baina binakako txapela falta dut eta lortu nahi dut».

Oinatz BENGOTXEA
Leitzako pilotaria
BERRIA 2015.04.01

11 galdera labur

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Doneztebeko mutil gazte eta alai bat naiz.

Aitari ikusia semeak egin?

Laxoa belaunaldiz belaunaldi pasatzen den jokoa da eta berak gaztetatik hau transmititu dit.

Aita duzu partidetan epailerik gogorra?

Bai. Ongi jokatzeko dugunean ez du ezer esaten, baina gaizki jokatzen badugu marmuri batean egoten da albotik begira. Azkenean, guk baino gehiago sufritzen du.

Zer du laxoak beste kirolek ez dutena?

Gure ondare historiko eta kulturala dela, eta xarma berezi bat daukala.



laxo txapelketan txapeldun, zein traza hartzen diozu aurtengoari?

Garrantzitsua Laxoa gure artean mantentzea da. Bestetik, partiduz partidu hobetzen joatea eta aurreko urtekoa lortzen saiatzea.

Estrategia bereziren bat pentsatua duzue?

Taldea osatzen dugunok oso lagunak gara eta hori da sekreturik bereziarena.

Herrietako bestak ere hastear dira, kirola eta besta nola lotzen dira?

Nahiko ongi. Partiduak besta aurretik jokatzen saiatzen gara eta bestela resakarekin, ohituta bai-kaude.

Laxoaz gain, zein afizio dituzu?

Pilotarekin zerikusia daukaten kirolak asko gustatzen zaizkit, baita arrantza eta ehiza ere.

Astebururako planik ederrena?

Toki berriak bisitatzea edota lagunekin elkartzeko trago batzuk hartzeko eta afaltzeko.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Gaur egungo egoera ikusita pixka bat zaila, baina aurrera ateratzeko esperantzarekin.

Amets bat?

Nire inguruko guztiek osasuna eta bitzita ekonomiko on bat izatea

JOKIN "TXIRRI" ARRAZTOA → Doneztebeko laxoa jokalaria

URDAZUBIKO BESTAK 2015

ttipi-ttapa | 637 zbk
2015.04.30

11



MAIATZAREN 13a ASTEAZKENA

- 20:00 Txupinazoa eta ezkil jotzea herriko trikitilariekin eta aperitifa
- 21:30 Txuleta jana Montxon, Modestok alaiturik.

MAIATZAREN 14a OSTEGUNA

- 11:00 Meza Nagusia
 - 12:00 Aperitifa
 - 16:30 Haurren jokoak
 - 18:00 Txokolatada
 - 21:30 Paella jatea
- Ondotik Holako taldearekin dantzaldia

MAIATZAREN 15a OSTIRALA

- 12:00 Gorriti bere animaliekin
 - 14:00 Ugarana elkarteko bazkaria Koxkan
 - 14:00 Gazte bazkaria
 - 16:30 Haurrentzako jokoak
 - 18:00 Triki poteoa herrian barna
 - 20:00 Sagardotegi mugikorra. Sagardoa pintxo goxoeekin eta Hauspolariek girotuta.
- Gauean Dantzaldia Hauspolariekin.



Jatetxea
Ikaburua
Apartamentuak
Plater konbinatuak · Menua · Karta



Barrio Leorlas · URDAZUBI/URDAX
T. 948 59 92 22 - 690 75 58 75 · www.ikaburua.com

IRIGOIENEA
ongi pasa bestak!!
☎ 948 599 267 · URDAZUBI
www.irigoiena.com · reservas@irigoiena.com



ANASTASIA OSTATUA
Ostatua · Janaridenda
Prentsa · Aldizkariak
Landetxea
Besta onak pasa!
948 599 027
URDAZUBI



Josenea Gasolindegia
Urdax - Urdazubi Dantzarinea
www.urdax-dantzarinea.com



www.josenea.es

Mikelen-Borda
Benta - Jatetxea
ongi pasa bestak!
Dantzarinea 37112 (Nafarroa) - Tel 00 34 948 599045



ETXELEKUA ongi pasa bestak!
ARDI LATXAREN GASNA
7AK MUNDUAN
SALMENTA ZUZENA EGUNERO
Zugarramurako karretera
948 599 169 - Urdazubi
www.etxelekua.com



ZUBIONDOA
OSTATUA
AUTOZERBITZUA
OROIGARRIAK
ongi pasa bestak!
(0034) 948 599 041
DANTZARINEA



Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel.: 659 862 417
Itur-ttapi etxea
Landibar Auzoa
URDAZUBI
pinturasalzuyet@yahoo.es

PINTURA
DEKORATIBOA ETA INDUSTRIALA
Dekorazioa: estukatzeak, beladurak
Fatxadak - Barnealdeak - Pladurra
Lakotua eta bernizatuak kabinan

ONGI PASA BESTAK!



URDAZUBIKO BESTAK 2015

Faustino ETXABE tailerrak

Autoen konponketa

BESTA ON BATZUK PASA !!

☎ 948 599 038 • ZUGARRAMURDI

SANTIAGO VILLARES S.L.

Ongi pasa bestak!




LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santogovillares.com
www.santogovillares.com

MAIATZAREN 16a LARUNBATA

- 10:00 Kontrabandisten lasterketa 2015
- 14:30 Zikiroa txarangak alaiturik eta gero kalejira herriko karriketan barna
- 16:30 Haurrentzako jokoak
- 21:00 Triki poteoa herriko karriketan barna
- 20:00 Zingar jatea eta giro onari eusteko Tifanin mariatxiekien dantzaldia
- 00:00 Ingo al deu taldearekin dantzaldia



JĀTĒTKĒĀ - ERRETEGĪĀ

MONTXO

OSTĀTUA • TABĀKO-DENDĀ



**ASTEĀZKENETIK
IGANDĒĀ
GĀUEZ BESTĀ
GIROĀ**

ANZAN BORDA
URDAZUBI NAFARROA
(Dantxarineatik 2km.tara)

T. 948 599 039
montxoblanco@gmail.com



ONGI PASA BESTAK!

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK • PINTXOAK
MENUAK ENKARGUZ • ESPEZIALISTAK ARRĀIN ETA TXULETOĪAN



MAIATZAREN 17a IGANDEA

- 17:00 Kenpo Kai erakustaldia
- 18:00 Nesken frontenis txapelketako finalak eta mutikoen pala txapelketako finalak
- 20:00 Boletoen zozketa
- 20:15 Pintxoak denentzat, Hauspolariek alaituta



ARMUA JATETXEA

URDAZUBI • Alkerdi auzoa, Km. 3
Teléfono: 948599131 • Fax: 948599131

ONGI PASA BESTAK!!

CONSTRUCCIONES A. BENGOTXEA

- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamentuak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

ONGI PASA BESTAK!
URDAZUBI
Tel. 948 599 166 www.carrelagesbengotxea.com

VENTA PEIO
Zure erosketa gunerik hoberenak
Euskal Herriko bihotzean

Ongi Pasa Bestak!

Arnegi

Dantzarinea

Behobia

Landibar

Agus Benta

Ibaardin

KUPELA SAGARDOTEGIA

Kupela
Cidrerie

MIKALA OSTATUA & PINTXOAK

MIKALA
BAR & SNACK

LUGARANA JATETXEA

LUGARANA
Restaurant

NUBA DANTZALEKUA

NUBA

► **LANDIBAR CENTER:**
Barrio Dantzarinea s/n, 31711 URDAX Ext: 662 | ☎ 902 210 800 (es) | ☎ 0820 562 267 (fr)

WWW.VENTA-PEIO.COM | ☎ 34 902 210 800 (es) | ☎ 0820 562 267 (fr)

Arnegi | Dantzarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibaardin

URDAZUBIKO BESTAK 2015

La KOXKA
jateketa
ongi pasa bestak!
948 599 042 • URDAX



Anastasia VIDART ORGANBIDE | Urdazubiko ostalaria

«Lehen euskal talde on aunitz etortzen ziren eta horrek jendea erakartzen zuen»

Amak hasitako bideari segi eta urteak daramatza Anastasiak mostradorea-
ren gibekeko aldean lanean «20 urte nituenean hasi nitzen amak ireki zuen
dendan lanean eta 33 urterekin hartu

nuen bere lekua». Geroztik, hamaika tra-
go eta mokadu zerbitzatu eta beste hain-
beste egunkari, janari... saldu ditu. Urte
guzti hauetan denetarik bizi izan du «ga-
rai batean lotarako astirik ere ez ge-
nuen izaten» aipatu digu Anastasiak «mu-
ga isten zutelarik, goizeko zazpiak ar-
te irekia egoten zen ostatua eta bi orduz
itxi ondotik 9etan zabaltzen genuen
berriro». Gainera, «ordutegi hori ere, gu-
titan betetzen genuen eta orain ere
larri ibiltzen gara betetzeko». Orain or-
dea «gauzak aldatu dira zertxobait,
azken urte hauetan senarrak eta ala-
bek behartuta astelehenetan hasi ni-
zen isten».



Anastasia Vidart.

Ingurukoek besta egiteko lan egin behar izaten du berak eta horregatik bes-
tak iritsi aitzineko egunak «nerbio pitta batekin» bizi ohi dituela aitortu digu
«dena prestatu behar baita». Goizeko 10:00etan hasten da lanean eta hu-
rrengo eguneko 05:00ak arte, asko izaten dira tragoxka eta mokadu eske joan
edo erosketa egitera hurbiltzen zaizkionak. Jendearen sartu-irtena handia iza-

URDAZUBIKO UDALA



**Urdazubiko Udalak
besta zoriontsuak
opa dizkizue
urdazubiar eta
bisitari guztiei !**



Jatetxe-erretegia terrazarekin.
(Herriko plazan, errota-kanalaren ondoan)

Karta berezia bazkari eta afarietarako,
aste hondarreko eta eguneko menuak.

Berezitasuna: Urdazubiko amurraina ondo beltzekin.
(etxeanekoitzia). Gazta eta postrea; gozogintza landua.

Sukaldaritza berria, etengabe berritzen.

Ardo karta zabala.

Bertako produktuak: amurrainak, ondoak, haragikiak, chizakiak,
arrainkiak, gaztak, intxaurrak, ezta, sagardoa, esnekiak...



URDAZUBI-URDAX
Urdazubiko Plaza
www.nikolaurenea.com
T. +34 948 599 477
M. +34 620 021 967

IREKIA
Astelehenetik Igandera
Asteazkena itxita
(Besta egun eta haien
bezperak izan ezik)

MENUA eta KARTA
Haragi eta arrainki erreak




**NIKOLAURENEA
ERRETEGIA**
URDAX-URDAZUBIKO PLAZAN

ten den egun horietan, «pazientzia eta lasaitasun handia» beharrezkoak izaten direla ere erran digu «hemen ezin zara nerbiostu!». Eta ezinbertzeko beste osagai bat ere aipatu digu «umorea behar da, beti animos egon behar da».

Eskualdeko lehenbiziko festak izaki, «duela urte batzuk arte lan handia egin izan dut, Iparraldeko jendea etortzen zelako, Iparraldean besta baita». Garai hartan izaten ziren mugak ere gainditzen omen zituzten bisitariak bestarako gogoak bultzatuta «muga gau-erdian hesten zen, jendeak ezin zuen etxera bueltatu kotxean. Horregatik, mugan uzten zuten kotxea eta goizeko 4ak aldera, guk eramaten genituen muga oinez pasatzeko eta hala etxerat gateko». Orain mugak bertzeak dira «gauzak aldatu dira, alkoholemia kontrolak izaten dira Urdazubiko sarreran eta horrek jendea izitzen du. Orain etortzen direnak ezin edanez edo taxia hartu behar izaten dute».

Ez da aldatu den gauza bakarra «lehen euskal talde on aunitz etortzen zen. Egan taldea urte aunitzez etorri da, hain ezagunak ez zirelarik. Eta horrek jendea erakartzen zuen».

Ez du uste Urdazubiko bestek ezer falta edo soberan dutenik. Berexitasuna, «mahaiaren bueltan ordu aunitz ematen direla» da Anastasiaren ustez, «xuletada, paellada, Ugarana elkarteak antolatzen duen bazkaria, sagardotegi mugikorra, zikiroa eta ortzegun eta igandeko pintxoak... jatekoa ez da falta izaten». Horretaz gain, «musika talde aunitz ere badira, haurren jokoak... ekitaldi asko eta denak politikak dira, jendea elkartzea lortzen dutelako».

Egunik maiteena, «lehenbiziko eguna da» berarentzat, maiatzaren 14a aurren, «lehenbiziko eguna denez, jendea gogoz izaten da eta eguraldi ederra egiten badu hobe!».

Hasia izanen du atzera kontaketa dagoeneko Anastasiak, edariak frexkatzen jarri, dendarako produktuak ekarri... Ea besta eta lana, biak egiteko aukera duen, bestak akitzean ongi irabaziak dituen «oporrak hartu» aurretik.

«Frontera gau-erdian hesten zuten. Jendeak ezin zuen etxera bueltatu kotxean. Horregatik, mugan uzten zuten kotxea eta goizeko 4ak aldera guk eramaten genituen muga oinez pasa eta hala etxerat gateko»

IRIARTEA BENTA
Autozerbitzua · Ostua · Larua...
DANTXARINEA · Urdazubi · T. 948 599 049 · ventairiartea@hotmail.es

indianoabaita
ostua
barostatua apartamentos rurales
BAZKARIAK
AFARIAK
BOKATAK...
948 599 021
URDAZUBI

ttipi-ttapa ko
BERRIAK
TWITTERREN ERE BAI!
JARRAI ITZAZUE GURE TXIOAK!

JOXEMI BENGOTXEA S.L.
ZVRGINDEGIA
• teilatuak
• fabadak
• egurrezko estrukturalak
• eskailerak
• leihoak
• atekak
• altzariak
• zolak
T. 660 501 584 · F. 948 599 169
Etxelekua · URDAZUBI · joxemibengotxea@yahoo.es
ongi pasa bestak!
LYCIANO IRIARTE S.L.
ESKABAZIOAK
ESKAILERAK
LVR MVGIMENDYAK
T. 660 501 584 · NARBARTE



ARRETXEIA ESTANKOA
ZIGARRO PURUEN CAVA
DANTXARINEA (Urdazubi)
T. 948 599 018 · F. 948 599 015
estancoarrechea@yahoo.es

IRURITAKO BESTAK 2015

sukaDeco estudio cocina y baño



www.sukaldec.com
IRURITA 948 580 666



ARKUPE

Gozotegia · Txokolategia

Txokolatea, urrazkoa, almendrazkoa, beltza eta xuria.
Tabletak, bonboiak, trufak, Txokolate konfitatua.
Tartak, etxeko izozkiak, pastelak pastak, miniaturak, bolloak...

KAFETEGIA

Elizondo - Tel. 948 452 393
Irurita - Tel. 948 452 021 - 948 580 059
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com

MAIATZAREN 13a ASTEAZKENA

12:00 Txupinazoa eta herriari buelta Baztango gaiteroekin. 16:00 Haurrendako herri kirolak. 18:00 Merendua. 18:30-20:30 Dantzaldia Hauspolariekin. 20:00 Ezkil jotzea. 21:00 Baztanzopak. 01:00 - 04:00 Dantzaldia karpan Hauspolariekin.

MAIATZAREN 14a ORTZEGUNA

10:00 Dianak. 11:00 Meza Nagusia. 12:00 Herriko dantzarien erakustaldia. 13:00 Luntxa. 17:30 Trinketeko Haurren esku pilota txapelketako finala. 18:15 Trinketeko VIII. Esku pilota txapelketako finalak. 19:30 Bertso poteoa Julio Soto eta Sustrai Colinarekin. 20:00-21:30 Dantzaldia Oharkabe taldearekin. 21:30 Mutildantzak. 00:30-04:00 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.

MAIATZAREN 15a ORTZIRALA

10:00 Dianak baserrietan. 11:00 Haurrendako Jokua erreboteko plazan. 13:30 Haurrendako bazkaria karpan. 14:00 Jubilatuen bazkaria Olari Jatetxean eta Gazte bazkaria Baigorri 15:00 Haurrendako jokoak 18:00 Txokolatada. 20:30 Dantzaldia Laiotz taldearekin 21:30 Mutildantzak. 23:00 Kontzertuak eta Tirri-Tery DJak karpan. 01:00-04:30 Dantzaldia Laiotzekin.



MAIATZAREN 16a LARUNBATA

10:00 Dianak Txarangarekin. 11:00 Haurrendako jokoak. 12:30 Aizkora desfioa. 14:00 Zikiro-jatea txarangarekin 18:00 Herriari buelta txarangarekin 20:00 Triki-dantzekin dantzaldia 21:30 Mutildantzak 01:00-05:00 Gaupasa Trikidantzekin

MAIATZAREN 17a IGANDEA

10:30 VIII.Haur Krosa 11:30 VII.Herri lasterketa 12:30 Sari banaketa eta luntxa 18:00 Dantza erakustaldia 20:00 Mariatxi taldearekin dantzaldia 22:00 Afari herri-koia Ondoren Besten akabaila

Nekazal Tresneria-Maquinaria Agricola
ARAZ - BERRI
www.arozberri.com

IRURITA

ORIKAIN

Tel 948 581021
FAX 948 452103

Tel 948 332617
Fax 948 360924

Carta

Gorka URTASUN | Iruritako gaztea

«Modu batean edo bertzean ekitaldi bakoitzaz gozatzen saiatzen naiz»

Iruritako 28 urteko mutikoa da Gorka, «**la-gunekin egotea eta kirola egitea arras gustoko dituen**». Uda eta besta sasoiak heltzen denean, bi afizioak uztartu beharra izaten du eta aipatu digu «**Besta eta kirola egia da ez direla arrot konpatibleak**». Horregatik «**norbera koziante izan behar da momentu bakoitzean zeintzuk diren bizitzan bere lehentasunak eta hoietan gogor saiatu**». Hala, aitortza txiki bat ere egin digu «**gezurra erranen nuke kirolarengatik bestak alde batera utzi behar izan ditudanean mina eman ez didala errango banu, baina horri ere hartzen zaio buelta**».



Eskualdeko beste Iruritako txupinazoarekin ematen zaienez hasiera, «**jendeak arras ongi**» erantzuten duela dio «**nabaritzen da jendeak herriz herri ibiltzeko izaten duen gogo**». Iruritako besten berezitasuna «**sortzen den giroa**» dela dio, «**herriko jendearen artean izaten den giroa**. Adin desberdinetako herritarrak helburu berarekin, bestez gozatzea, nola elkartzeko diren ikusteak eta bizitzeak egiten ditu bestak berezi».

Ekitaldi bat aukeratzera «**ez naiz ausartzen**» erran digu, «**bere osotasunean ditut gustoko eta modu batean edo bertzean ekitaldi bakoitzaz gozatzen saiatzen naiz**». Besten bueltan bitxikeria dezente izaten direla ere erran digu «**baina hobe nerretzat gordetzen baditut**» dio irri artean.

«**Duela pare bat urte hasi ginen igandean afari herrikoia antolatzen eta indarra hartzea nahi genuke**»

Bertzetako egunik berexiena «**ortzeguna dela erranen nuke**. Herritarren eguna dela iduritzen zait, goizean dantzariak, arratsaldean pilota partiduak, bertsolariak, eta gauean ere herriko jendea bakarrik egoten da eta giro berezia sortzen dela iduritzen zait». Besten egitarauan aldaketa haundirik ez dela izan ere erran digu, «**gutxi gora behera urtero programan aldaketa bortitzik ez egiten saiatzen gara**». Aldaketa bat aipatzekotan «**jende kopurua izan daiteke**. Aipatzen dute herritar askok lehenago askoz jende gehiago ibiltzen zela». Berak ere gogoan du «**umea nintzenean nola egoten ziren Lekarozera eta Elizondora doan bideak autoz beteta**. Gaur egun hori ez da ikusten». Bestak igandean bukatzen dira afari herriko batekin «**duela pare bat urte hasi ginen honekin eta gustatuko litzaiguke poliki poliki indarra hartu eta gero eta jende gehiago izena ematea**».

Bestarako tenorea heldu da, bost egunez gozatzekoa. «**astelehenean gauzak bildu, herria txukundu eta normalitatera bueltatu aurretik**».

OLARI
jatetxea



jatetxea aire egokituarekin hornitua
ongi pasa bestak!

Tel. 948 452 254 · IRURITA
rteolari@hotmail.es
www.restauranteolari.es






HARATEGIA
OBRERGOZO
UNAI ECEIZA VERGARA *ongi pasa bestak!!!*

Pedro M^a Ugalde, 1-Behea IRURITA | T. 948 581 077

J.P AGERREBERE

Karrozeria · Aroztegi Metalikoa




Zaldubi ind. IRURITA · Tel.: 948 580 538 | 630 184 847

ongi pasa bestak!!! Carpintería

Lizasoain, S.L.

Erreformak orokorrean · Leihoak · Ateak · Eskailerak · Armairuak
948452077 · Zaldubia ind. · 31730 IRURITA

www.rotugrafik.com

rotugrafik
errotuloak

ERROTULOAK

SEINALEAK

INPRIMAKETA DIGITALA

LASER GRABATUAK

EGUZKI LAMINAK

Tel. (0034) 628 817 010

Zaldubia industrialdea · IRURITA



GIZARTEA

GIZARTEA → ARKUPEAK ELKARTEA

Lacturaleko instalazioak bisitatu dituzte erretiratuek

Maiatzean Lourdes eta Benidormera ez ezik, Santiagoko Bidean segituko dute

TTIPI-TTAPA

Urtea aurrera doan neurrian Arkupeak-ek egindako programa ere gauzatzen doa. Apirilean soinketa eguna ospatu zen Donezteben, Lacturale-ren instalazioak bisitatu, eta Kataluniako bidaia egin.

Lacturaleren instalazioen bisitan helburu

hauek bete ziren: Esnearen ibilbidea ikustea hasieratik bukaeraraino, behien bizi zikloa ezagutzea, abeltzaintzatik bizi den jendearen bizimodua ezagutzea eta azkeneko urteetan zenbat aldatu den ikustea, lana egiteko era ezagutzea, bisitaria esnearen ezaugarri berezietara bideratzea, naturarekin bat egitea eta inguruko ekonomía indartzea. Arlo hauek ikusteko aukera izan zuten erretiratuek: Interpretazio gunea dagoen eraikina, elikadura biltegia, nekazaritza tresnak, ekoizpen nabak, purina bereizte-



UTZITAKO ARGAZKIA

Arkupeak elkarteko kideak harat-honatean dabilta

ko instalazioak eta biltegia, esne biltegia, basakula, behiak jezteko robotak, eta abar.

Lacturalek eremu hauetatik biltzen du esnea: Ultzama, Baztan, Imotz, Arakil, Malerrika eta Larraun.

MAIATZEKO JARDUERAK

Maiatzean ere badiutuzte hainbat ekitaldi prest: hilaren 7an Lourdesera joango dira, 18tik 31ra Benidormeko bidaia, eta 10etik 20ra Santiagorako bidea.

Benidormeko bida-

iarako badira oraindik plaza libreak. Izena emateko deitu 948 450878 bulegoko telefonora.

Santiagorako bidaiari 25 pertsona ibili dira, bi taldetan banaturik, 2013an hasita. Talde batek 2014an bukatu zuen, eta bertze batek maiatzean egingo ditu azkeneko bederati etapak. Hilaren 10ean abiatuko dira kotxez Santa Catalina herriarabiatzeko, hurrengo egunean 32 kilometroko 11. etapa buru-

tzeko Fancebadon herrixkatik Cruz de Ferrorara. Bertze etapen bukaerak zihuraski La Porteta, Fonbria, Sarria, Portomarin Casanova Pedrouzo eta Santiago izango dira. Egutero 27 kilometro egingo dituzte gutxi gorabehera, azkeneko egunean iristeko Santiagoa. Han ziertagiria hartuko dute, Santiago besarkatu, hirian barna itzuli bat egin, Meliden pulpo ospetsua dastatu eta lo egin. Hilaren 20an jeikita gosalduta eta itzuliko dira.

BERA Zure ingurua klase guzietako inektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

sarobe[®]
gozotegia okindegia

Pº de eztegara 25 bajo
31780 bera (navarra) 1.948 63 08 99
www.sarobe.net

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

ERROTAZAR
harategia

Bertako produktuak

Eztegara, 3 • BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 • BERA

ERANDONKA, s.l.
PARRILAS Y VERDELAGOS
PARRILAS Y VERDELAGOS

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

GIZARTEA → LAB, ERNAI ETA KAXERNAREN ESKUTIK

Langileen Eguna mobilizazio, bazkari eta kontzertuekin

La Bona Dea eta Dama taldeak ariko dira arratsean Gaztetxean

TTIPI-TTAPA

Gaztetxeko areto nagusiko paretak soinu premian daudela eta, egarri hori asetzeko kontzertua antolatu du Kaxernak maiatzaren 1ean. Ortziral arratseko 10etan hasita, Dama eta La Bona Dea taldeak izanen dira taulagainean. Sarrera 3 euro kobratuko da. Aitzinetik, Langilearen Eguna dela eta, egitarau interesgarria osatu dute, LAB eta Ernairekin elkarlanean. Goizez mobilizazioak izanen dira eta 13:30ean bazkaria Altzateko frontoian.

Argazki Rallya

Ricardo Baroja ikas-tetxe publikoko Guraso Elkarteak LHko ikasleentzat argazki rallya antolatu du maiatzaren 9an, 10:00etan hasita. Egindako argazkiekin erakusketa izanen da maiatzaren 28-29an.

Gazte Programa

Urdiberak antolatuta, ciclo gau saioa egiten da maiatzaren 8an, ortziralean 21:00etan eta crossfit jokoak maiatzaren 16an, larunbatean 17:00etan kiroldegian. Izen emateko bi euro ordaindu beharko dira kiroldegian.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Giro ederra Zahar Etxeko Kultur Astean

Giro ederrean joan zen Zahar Etxeko Kultur Astea. Ehiza eta Arrantza Elkartearen egindako bazkariarekin hasi, taloak egin, Bidazi ezagutu, jotak eta bertsolariak aditu eta egunerokotasunetik ateratzeko ekintza ederrak izan zituzten.

UDAL HAUTESKUNDEAK

EH BILDU



Josu IRATZOKI AGIRRE

2. Arantxa Zubieta Otxoteko. 3. Joxe Manuel Portu Berasategi. 4. Ixone Telletxea Uranga. 5. Aitor Elexpuru Egaña. 6. Mikel Lertxundi Korta. 7. Ines Matxiarena Aldalur. 8. Patxi Castillo Graziarena. 9. Adela Arlegi Goienetxe. 10. Aitor Iantzi Goienetxe. 11. Kontxi Aldalur Arrieta.

HERRIRAKO



German CASTILLO LAZKANOTEGI

2. Jose Miguel Gorria Bikuña. 3. Jose Antonio Oiarzabal Iribas. 4. Raquel Quiroga Tapia. 5. Mainer Gorria Bikuña. 6. Prudencia Quiroga Garcia. 7. Alberto Telletxea Bertiz. 8. Isaac Telletxea Bertiz. 9. Sonia Vilares Lucas. 10. Beatriz Franco Mugica. 11. Silvia Llordes Alonso.

PPN



Nerea VALEZ AMO

2. Maria Garmendia Martin. 3. Juan Pablo Paramo Nombela. 4. Jabier Trinidad Morales Moreno. 5. Rocio Gil Minguez. 6. Ismael Fernandez Ruiz. 7. Paula Elcarte Gonzalez. 8. Jorge Cereijo Alsina. 9. Fco Jabier Roland Cardona. 10. Paula Alba Cano. 11. Esteban Gonzalez Pons.

UPN



Juan LOSA OKARIZ

2. Emiliano Martin Perez. 3. Fco Jabier Atienza Martinez. 4. M^a Luisa Duran Los Arcos. 5. M^a Isabel Gartzia Malo. 6. Miguel Angel Gonzalez Moreno. 7. M^a Josefa Gordo Arko. 8. Iñigo Santxex Bikondoa. 9. Cristina Lopez Mañero. 10. M^a Josefa Lazkoz Artanga. 11. Sergio Sayas Lopez.

Xirgil
Jalene Goya
Alzate 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 462

elika
Dietetika eta elikadura
IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221
Itzea, 6 behea 31780 BERA
t 948 631 283 | 645 708 512
e. elikabera@hotmail.com

Arturo
Arropak | Etxerako osagarriak | Lentzeria | Mertzeria
Alzate, 20 BERA T. 948 630 136

LESAKA

GIZARTEA → UDALAREN EBAZPENEA

Kultur eta kirol elkarteentzako 45.000 euro banatuko dituzte aurten

75. urteurrena ospatzen ari den Beti Gazte izanen da gehien jasoko duena

Aitor AROTZENA

Kirol eta kultura elkarteek 2015. urterako aurkeztu dituzten programak ikusita, 45.032,30 euroko dirulaguntzak ematea ebatzi du herriko Etxeak.

Musika arloan, 15.319,82 euroko dirulaguntzak banatuko ditu: Lesakako Abesbatzak 2.759,50 euro, Giltzarri Abesbatzak 3.915,12 euro, Santa Zezilia Batzordeak 1.706,10 euro, Soinulari Taldeak 731,10 euro, Trikitixa taldeak 906 euro, txistulari taldeak 1.302 euro eta Musika Bandak 4.000 euro.

Kultur arloari dagokionez, 17.556,10 euro banatuko ditu. Zatiirik handiena, 75. Urteurreneko ospakizunetan ari

den Beti Gazte elkarteak jasoko du (5.049 euro), Bortzirietako Bertso Eskolak 1.293,50 euro, Irain Guraso Elkarteak 1.924 euro, maiatzaren 23an Bidasoaldeko II. Arte-Artisautza Azoka antolatuko duen Bihotzkada Kolektiboak 1.887,60 euro, Mairu Antzerki Taldeak 1.320 euro, Otxogorriena Guraso Elkarteak 1.396 euro, Tantirumairu Euskal Folklore Taldeak 3.102 euro eta Tantirumairu Ikastolak 1.584 euro. Arrano Elkarteak ere dirulaguntzajaso du zako zaharrak eta Sanferminetako bertso saioa antolatzeagatik, baina Inauterietako eta beste-tako diru-ataletatik hartuko ditu.

Kirol arloan, azkenik, 12.156,38 euroko dirulaguntza banatuko du Lesakako Udalak. Beti Gazte elkarteak 8.184 euro jasoko ditu, Arkupe Pilotazaleen Elkarteak 2.640 euro, Batzoki Elkarteak 820,38 euro eta Bortzirietako Pilota Elkarteak 512 euro.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ziharka peñak hamar urte

Girot ederra paratu zuten Ziharka peñakoek apirilaren 18an, bere hamargarren urteurrenean. Sanferminetara ezin esperatu eta peñakide batzuk txarangan josten dutela aprobetxatuz, Incancables ere ekarri zuten kalejiran ibiltzeko eta gero, ederki bazkaldu zuten.

UDAL HAUTESKUNDEAK

EH BILDU



**Maider
ARRIETA
TAPIA**

2. Oier Iantzi Ordoki. 3. Lorea Flores Compains. 4. Severiano Txoperena Matxikote. 5. Mattin Etxabide Gartzia. 6. Xabier Maritxalar Etxabide. 7. Eukene Oiartzabal Maritxalar. 8. Garazi Konde Orube. 9. Mikeli Olaetxea Alzugarai. 10. Jesus Zapirain Alzugarai. 11. Peio Etxabide Gartzia.

GEROA BAI



**Jose Luis
ETXEGARAI
ANDUEZA**

2. Iban De Prado Etxepeteleku. 3. Pello Apeztegia Alzugarai. 4. M^a Victoria Gortari Aldabe. 5. Esteban Irazoki Irazoki. 6. Jose M^a Portu Otxoteko. 7. J. Esteban Etxebeste Apeztegia. 8. Carlos Ubiria Portu. 9. Victoriano Ruiz Alvarez. 10. J. Pierre Vincent Mesple. 11. Antonio Hidalgo Hidalgo.

FLASH

Musika banden alardea

Beti Gazteren 75. urteurreneko ekitaldien barne Musika Banden Alardea egingen dute maiatzaren 9an. Bera, Elizondo eta Lesakako bandek kalejira egingen dute 17:30ean eta 19:15ean kontzertua plazan (euriarekin kontentuko elizan). Bertze aldetik, Donostia-Zarautz mendi trabezia egingen dute igande honetan, 07:15ean abiatuta.

Gure esku dago oihal margoketa

Gure Esku Dago dinamika oihal margoketa egingen du maiatzaren 2an, 20:00etan Alhondigako arkupetan.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR

• Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
• Ongarriak • Burdin tresnak
• Insektizidak • Edariak • Haziak

KALEFAKZIOA eta IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA
ETXEZ ETXEKO BANAKETA

NEKAZARITZA EKOLOGIKOA ENEEK
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA
IBILGAILUENDAKO GASOLIO MERKEENA
Inskripzio Zenbakia 1435

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak

kattagorria
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

IRU BIDE
Erregetia · Asador

Biuerrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

GERTAERAK → APIRILAREN 14AN

18 Hektarea oihan erre du suak Irazako eta Zimitzu aldean

Zugarramurdiko bidea egun osoan itxita egon zen, harriak eta egurrak sutan erortzen baitziren

Irune eta Itsaso

Apirilaren 14ko iluntzean, "nahita emandako suak" kalte handiak egin ditu Zimitzu-Irazako-Zentinela aldean. Denetara 42 hektarea erre dira, horietatik 18 Ha. 25 urteko zuhaitzak zituen oihana, «hazkuntza zikloaren erdia egi-

na zuten arbolak». Zehazki, Irazakon 16 Ha. pinu larizio eta pagoa, eta Zimitzu parean 2 Ha. pinu larizio. Suhiltzaileak etorri ziren baina gaez ezin izan zuten sua itzali. Herriko hainbat boluntariok ere gau osoa pasatu zuten sua itzali nahian baina, azkenean, ondoko goizean helikoptero bat etorri eta igerilekuan ura hartuz, sua itzaltzea lortu zuten. Zugarramurdiko bidea egun osoan itxita egon zen, harriak eta egurrak sutan erortzen baitziren bidera. Denetara, 42 bat hektarea erre ziren, 24 Ha. larre eta 18 Ha. oihan.



ARGAZKIA: AMAIA ALTOLAGIRRE

Olako bordako bidearen gaineko alde.

Gure Esku Dago

Apirilaren 17an egin zen Gure Esku Dago ekitaldiaren aurkezpena Kultur etxean. Maiatzaren 1, 2 eta 3 ko asteburuan oraindik zehazteke dauden hainbat ekitaldi izanen dira Bortziritan; maiatzaren 3an adibidez Beran oihalak jostea. Ekainaren 21ean Nafartar guzientzat ekitaldi nagusia egingen da Iruñeako zezen plazan. Etxalarren Gure Esku Dago ekimenaren antolakuntzan aritzeko jendea behar da. Norbait prest egongo balitz herriko gazteekin edo zu-

zuekin Gure Esku Dagoekin harremanetan jarri behar du.

Dena prest II.Mendi Itzulirako

Apirilaren 18an antolaketa azken bilerara egin zen eta dena lotuta gelditu da maiatzaren 2rako. Egunean bertan 06:30etik 07:30era eman daiteke izena frontoian bertan edo alde aurretik www.mendizmendi.com web gunean. Irteera ordua 7:30etatik 8:30etara izanen da herriko plazatik. Informazio guztia alxta.org web orrian dago.

FLASH

Kantu bazkaria Larraburuan

Larraburua elkarte eta euskara batzordearen eskutik, maiatzaren 9an Hendaia kantariak girotutako kantu bazkaria egingen da. Izen-ematea Larraburua elkartearen (M^a Luz 948635166/66438734 3) edo Elutsa ostaturan maiatzaren 5a baino lehen.

Sukaldaritza begetariano tailerra

Maiatzaren 8an, arratsaldeko 5:30ean, Larraburua elkarteak eta euskara batzordeak antolatuta, sukaldaritza begetarianoari buruzko tailerra izanen da Larraburuan. Apuntatzeko 667766290 telefonora deitu behar da.

Maiatzeko mendi irteerak

Hauek izanen dira Zarpingorri mendi taldeak antolatutako maiatzeko irteerak. Maiatzaren 3an Bertiz, 08:00etan; maiatzaren 10ean Herri Urrats, 08:00etan; maiatzaren 17an Irubelakasko 08:00etan; maiatzaren 24an Orreaga (Zubiri) 07:30ean; maiatzaren 31n Aralar, 07:00etan. Irteera guztiak plaza-tik abiatuko dira.

UDAL HAUTESKUNDEAK

EH BILDU



Xabier BIZENTE ARBURUA

2. Jose Mari Maia Agirre. 3. Inma Gartzia Gartzia. 4. Xabier Iturria Arburua. 5. Ignacio Atondo Ubera. 6. Onintze Zinkunegi Artzelus. 7. Xabier Berrueta Arburua.

HERRI TALDEA



Miguel M^a IRIGOIEN SANZBERRO

2. Jose Mari Maia Ariztegi. 3. Garazi Remon Ibarra. 4. Leire Olagarai Goienetxe. 5. Asier Maia Mikelestorena. 6. Maite Olaetxea Indaburu. 7. Fermin Altzuguren Sanzberro.

ETXALAR BAI



Arantxa ZUBIETA AMEZTOI

2. Maria Mitxelena Urroz. 3. Pedro Galarrégi Zubieta. 4. Manuel Leza Olaizola. 5. Jose Ariztegi Irigoien. 6. Aitor Sansiñena Sarobe. 7. Jose Antonio Telletxea Bergara.

UPN



Jose Antonio GENUA IRIGOIEN

2. Miguel Angel Idoate Gastearena. 3. Jeronimo Gomez Ortigosa. 4. Rebeca Moreno de Gracia. 5. Jose M^a Miguel Marko Goñi. 6. Jose Ignacio Galarraga Casali. 5. Jose Iribas Sancheza de Boado.

ARANTZA

UDAL HAUTESKUNDEAK → EH BILDUKO HAUTAGAIA

Juan Miguel Almandoz izanen da hurrengo lau urteetan alkate

Zerrenda bakarra aukeztu da herrian

Nerea ALTZURI

Maiatzaren 24ko bozetarako talde bakarra aurkeztu da herrian: EH Bildurena. Lehen ere, urte aunitzez alkate izaniko Juan Miguel Almandoz da alkategaia eta berekin, Udaleko martxan esperientzia dutenek eta ilusioz eta gogoz sartu direnek osatu dute zerrenda.

«Herri osoarentzat» lan egin nahi duten talde bezala aurkeztu dute euren burua. Eta zerrendan ageri direnez gain, «batzordetan banatuta, herriaren alde egiteko gogoz dagoen lantalde handia, anitza eta bizia dutela» azpimarratu dute. Informazioa garbi emanez, «gardentasunean eta zuzentasunean oinarritutako udal irekia» izan nahi dutela ere azaldu dute.

Taldeari babesa emateko, apirilaren 19an, haur, gazte eta heldu aunitz bildu zen plazan eta argazki koloretsua ateratu zuten.

Udaleko kontuak

Apirilaren 17ko plenoan 2014ko kontuak onartu zituen Udalak eta orain espediente 15 egunez jendaurrean dago interesatuek aztertu eta erreklamazioak egin ditzaten.

Liburuaren eguna

Apirilaren 23an, Liburuaren Eguna izanda, zenbait ekintza egin zituzten eskolan. 2., 3. eta DBHko ikasleek liburuaren inguruko mezuak idatzi eta eskolan paratu zituzten. Bertetik, euskalkiak lantzen ari direnez, bezperan, euskalki ezberdinak mintzatzen dituztenen solasak aditu eta aztertu zituzten. Euskalki ezberdi-

'Jostunak' dokumentala ikusgai Ehuntzen asteburuaren barne

Gure Esku Dagok bere ibilbidea ez du hasi bertzerik egin. Iazko giza kate arrakastatsuen ondotik, aurtengo ekitaldiei begira jartzeko ordua heldu zaigu. Honen harira, Ehuntzen asteburua ospatuko da Bortzirietan maiatzaren 1, 2 eta 3an. Arantzan *Jostunak* dokumentala eskainiko da maiatzaren 2an, 17:00etatik aitzinera Baskulan. Aurtengo dinamikaren berri (*Gaur hauteskontzia, bihar erabakia*) bertan emanen da, eta ekainaren 21eko ekitaldi nazionalerako oihalak erosteko aukera izanen da, baita materiala erostekoa ere.

netako kantak ere kantatu zituzten.

Biharamun arratsaldean, Haur Hezkuntzako eta lehen zikloko ikasleek *Zazpi antxume* ipuina euskalki ezberdinetan aditu zuten. Herriko eus-

kalkian ez ezik, Kristina Urrutiak Goizuetako euskalkian eta Aritz Urrutiakoetxeak bizkaieraz kontatu zuten.

Asteariak abila emateko, ortziral arratsaldean bikoteka ipuinekin aritu

UDAL HAUTESKUNDEAK

EH BILDU



Juan Miguel ALMANDOZ MITXELENA

2. Mentxu Peña Lizarazu. 3. Ander Almandoz Indakoetxea. 4. Igor Ugalde Salazar. 5. Jose Jabier Mitxelena Ordoki. 6. Juan Mari Gonzalez Burgete. 7. Eneko Sarrias Zoco.

ziren lanean, bat ipuin kontalari eta bertzea aditzen.

Bertzalde, soinketako ekintza gisa, apirilaren 23an, 3. ziklokoak eta DBHkoak Mendaurrea joatekoak ziren.



Eh Bilduko zerrendari babesa emateko apirilaren 19an ateratako argazkia.

ERREKALDE
PLATER KONBINATUAK OSTATUA
PINTXOAK
BOKATAK
TFNOA: 948 630 259 BERA

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
KATEA-BIKE
bizikletak, osagarriak eta rock&roll!!!
CONDOR ORBEA
MASSI
SCOTT MERIDA

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com
zalain

OSPAKIZUNAK → ASTEBURU HONETARAKO

Udaberriko bestak antolatu ditu Euskara Batzordeak

Gure Esku Dago ekimenak aurkeztutako 'Jostunak' dokumentala ortzegunean

TTIPI-TTAPA

Udaberriko Bestak apirilaren 30ean hasiko dira, Gure Esku Dago ekimenak eskainiko duen Jostunak dokumental berriaren proiektioarekin. Eskolan izanen da, 19:30ean. Hurrengo egunean, maiatzak 1, goizeko 11etan hasita eta bi orduz, hurrek birziklitzeko tailer batean parte hartzeko aukera izanen dute, Anixe elkartearen eskutik. Eguraldiak laguntzen badu, eskola atarian izanen da, eta bertzela frontoian.

Egun berean, maiatzaren 1ean, arratsaldez, ogia egiten ikasteko saio bat izanen da Biltoki Elkartean. Jon Azkarraga etorriko da, Etxalarko okina. Edozeinek parte hartzen ahal du ikastaroan, eta ez da deus ordaindu behar. Arratsaldeko 4etan hasiko da eta bizpahiru ordu iraunen du. Eguna borobiltzeko, 20:00etan hasita, pintxo-potea izanen da bertako trikitilariekin, ostatu eta elkartean.

Maiatzaren 2an, larunbatarekin, eskola

atarian eta parkean mural batzuk margotuko dira, lehen Elizateko parretan egin zen gisara. Horretan nahi duen guztiak parte hartzen ahal du, baina dei berezi bat egin nahi zaie herriko gazteei parte har dezaten. Eguerdiko 12:00etan Bortzirieta Gure Esku Dago ekimeneko kideei ongi etorria eskainiko zaie, eta haiketako bat izanen da, plazan; dei berezia egiten zaie herritarrei etor daitezten, ekimen honek hurrengo hilabeteetan antolatuko dituen ekintzak ezagutzeko. Arratsaldeko 4etan guraso elkarteak haurrentzako jokuak eta berrendua antolatuko ditu, plazan.

Azkenik, urtero bezala, Udaberriko Beste akabaila emateko, maiatzaren 3an, igandea, 18:00etan, eskolako hurrek antzerki emanaldia eskainiko dute Baratzondon.

Euskara Batzordeak deia egin nahi die herritar guztiei antolatu dituen ekitaldi hauetan parte har dezaten.

Udaletxerako hautagaitzarik ez

Ez zen sekula gertatu baina maiatzaren 24ko udal hauteskundetarako ez da hautagaitzarik aurkeztu. Orain ikusteko dago nola osatuko den udala.



ARGAZKIA ETA TESTUA: JOXEAN ORTEGA

3.000 liburu katalogatu dituzte eskolako liburutegian

Orain dela 6 urte, 2008-09 ikasturtean, eskolako ikasleak liburutegia antolatzaren hasi ziren. Geroztik ikasleek, irakasleek, gurasoek eta baita herritar batzuek ere, lan horretan jardun dute apirilaren 16a arte. Egun horretan helduentzat diren liburuak katalogatzeaz bukatu zuten eta! Noiz eta Liburuaren Eguna-aren aurreko astean! Kasualitate polita. Osotara 3.000 baino liburu gehiago daude. Bideoak, Cdak, DVDak, jokuak, e.a. ere badira, gaztelaniaz eta euskaraz. Ikasleek etxetara liburuak maileguan eramaten dituzte. Bakoitzak bere karneta du eta 6. mailako ikasleek liburuazain lana betetzen dute. Mailegutza eskola ordutegian egiten den arren, orain lan guztiak bukatu dituztenez, herri osoari zabaltzea eta altxor hori probextea egokiena litzateke.

BORTZIRIAK SL **AMAREN EGUNERAKO ESKAINTZA BEREZIAK!!!**

 PHILIPS LUMEA (2 hilabete probatzeko) 199€	 PHILIPS HP 6553 depilatzeko makina 69€	 SOLAC ME7711 moldekatzailea XX€	 AURPEGI eta GORPUTZ ESFOLIATZAILEAK 49€-tik hasita
---	--	--	--

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091 . info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

BORTZIRIAK SL expert



%20 DESKONTUA SUKALDE ALTZARIETAN

MAHAI eta AULKIETAN ESKAINTZA BEREZIAK

Bidasoa, 45 . 31780 Bera . 948 630377 . 948 631091
info@bortziriak.com . www.bortziriak.com

BORTZIRIAK

EUSKARA → OSASUNBIDEAREN ERANTZUNA EUSKARA MANKOMUNITATEAREN ESKARIARI

Euskara eskatzeak profesionalik gabe gelditzeko arriskua dakarrela diote

536
sinadurarekin
aurkeztu zuten
eskaria

TTIPI-TTAPA

Bortzirietan burutu den *Mediku eta pediatra euskalduna nahi dut* kanpainaren baitan bildutako 536 sinadura orriak Bortzirietako Euskara Mankomunitateko lehendakariaren izenean erregistratu behar izan zituzten, banaka ez zituztelako onartu eta sarrera erregistorik ezin zietela eman adierazi eta gero. Guztiak beraz instantzia orokor bat bezte aurkeztu zituen Ander Almandoz, mankomunitateko lehendakariak. Instantzia horren erantzuna etorri da orain, Osasunbidetik, baina erantzun bakarra jasodute, eskatutako modu berean, lehendakariari berari.

Nafarroa Iparraldeko Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariordea den Antonio López Andrésen erantzunak dioenez, Lesakako eskualde oinarrizkoan hiru medikuk dute euskaraz jakin beharra: Lesakako oinarrizko osasun laguntzako taldeko medikuak, Arantzako oinarrizko osasun lagun-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ander Almandoz eta Maider Arrieta, Euskara Mankomunitateko lehendakaria eta lehendakari ordea, sinadurak Lesakako Osasun Zentroan aurkeztu zituztenean.

tzako taldeko medikuak eta Lesakako oinarrizko osasun laguntzako taldeko pediatrak. Dena den, profesional horiez gain, zentroan euskaraz dakiten eta euskaraz mintzo diren bertze zenbait profesionalak ere badirela dio idatziak. Antonio Lopez Andrések dioenez, arazo handiak dituzte medikuntzako profesionalen oporraldiak eta bertzelako hutsuneak betetzeko eta «ordezko guzti-guztiei euskara eskatuko balitzaie, horrek ekarriko luke Lesakako eskualde oinarrizko profesionalik gabe gelditzea opor garaietan,

bajan daudenean, etab...». Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritzaren erantzukizuna «eskualdean osasun laguntza bermatzea urtean 365 egunez eta egunean 24 orduz» dela dio idatziak.

Modu berean, lanpostuen ezaugarriak aldatzea Nafarroako Gobernuaren edo Parlamentuaren eskumena dela ere aipatzen du idatziak, eta «aldaketa horiek, gainera, ez lukete inola ere ezinbesteko eginen ordezkoei euskara eskatzea, osasun lanpostu horiek ez betetzeko arriskua oso handia baita gaur egun».

Ba al zenekien?

Begiraleen lan-poltsa osatzeko deialdia egin duela Euskara Mankomunitateak. Gutxieneko adina 16 urtekoa izan da eta DBH gainditua izatea eta euskaraz jakitea (C1 mailako titulazioa edo mankomunitatearen 2B mailako proba gainditua) eskatuko da. Eskaerak maiatzaren 20ko 12:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatean (Herriko Plaza 7, 31790 Arantza).

GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAK

Familia langileen ordezkapenak egiteko lan poltsa osatzeko deialdia egin du

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak familia langileen lan-poltsa osatu nahi du etxex etxeko zerbitzuan ordezkapenak egiteko. Hautagaiek gidatzeko baimena eta kotxea izan beharko dute eta euskaldunak izan. Kontuan hartuko dira egindako ikastaroak eta lan esperientzia.

Deialdian parte hartzeko eskaera, kurrikuluma eta ikastaro eta lan esperientziaren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira maiatzaren 20ko eguerdiko 12ak baino lehen Mankomunitateko bulegoetan, Etxalarren. Baldintzen edo proben inguruko informazioa jasotzeko, deitu 948 635 036 telefonora.

SMAZIZOR
edariak

T./F. 948 631 557
Helbidea. Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: mazizorsenper@gmail.com

EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
iturgintza • gasa
kalafakzioa

Tfnoa: 629449602 • BERA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttpi.eus



Bortzirietako

Hiri-Hondakinen Mankomunitatea

www.bortziriazabor.com
bulegoa@bortziriazabor.com
Tel. 948 63 52 54

Jakinarazten da: 2015eko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinatzen den bezalaxe:

2015eko TASAK

ERABILTZAILAILEEN eta TASEN MAILAK

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez	77,50 €	46,32 €
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak	66,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak	54,30 €	
1. Merkataritza eta zerbitzuak. Elikagaien eta etxetresna sektorekoak ez direnak: Mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak. Eraikin publikoak.	78,70 €	2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
2. Merkataritza. Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), etxetresna dendak eta farmaziak	154,60 €	
3. Merkataritza. Autozerbitzuak	235,70 €	
1. Ostataua. Noizbehinka irekitzen diren ostatu eta biltegiak eta jarraian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m ² ko edo gutxiagoko azalera dutenak	157,10 €	
2. Ostataua. 30m ² baino azalera handiagoko ostatauak eta janari denda daukaten ostatauak	314,50 €	
3. Ostataua. Pub eta diskotekak	392,80 €	
1. Jatetxea. Modu iraunkorrean irekiak dauden Elkarte gastronomikoak, eta 5 mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak	392,80 €	
2. Jatetxea. Bortz mahai baino gehiago dituzten jatetxeak	707,40 €	

KONTZEPTUA	BILKETA TASA	TRATAMENDU TASA
	€/urteko	€/urteko
1. Landetxea: 6 toki edo gutxiagokoa	78,70 €	2011ko abenduaren 28ko NAFARROAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak 254. zk
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	67,00 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	55,10 €	
2. Landetxea: 6 toki edo gehiagokoa	157,60 €	
Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden landetxeak	134,10 €	
Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden landetxeak	110,30 €	
1. Hostala. 10 logela edo gutxiagokoak	549,80 €	
2. Hostala. 10 logela baino gehiagoak	785,60 €	
Merkataritzako saltokiak, opariak bakarrik saltzeko	392,30 €	
Merkataritzako saltokiak, janaridenda edota ostatudunak	785,60 €	
Merkataritzako saltokiak, jatetxedunak	1.178,50 €	
Lantegiak, 4 langile bitarte. Jarduerak: argiketariak, iturginak, pintoreak...	78,70 €	
Lantegiak, 5-10 langile bitarte	157,10 €	
Lantegiak, 11-30 langile bitarte	392,80 €	
Lantegiak, 31-60 langile bitarte	785,60 €	
Lantegiak, 60-150 langile bitarte	1.178,50 €	
Lantegiak, 150-300 langile bitarte	2.233,10 €	
Lantegiak, 300 langile baino gehiago	3.291,50 €	
Norberaren erabilerarako edukiontzia	763,50 €	

Ordaintzeko era

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoiztua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

Ordaintzeko epea

- 2015eko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2015eko ekainaren 30era arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaruarekin kobratuko da.

Bortzirietako, 2015eko apirilaren 1a
Presidentea,
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

SUNBILLA

GIZARTEA → APIRILAREN 13TIK 17RA

English Week progamarekin Ilunberrin izan dira ikasleak

Tafalla, Cortes,
Azagra eta
Narbartekoekin
aritu dira

Maidier PETRIRENA

Aste santutik bueltan Eskolako haurrak hirugarren hiru hilera sartu dira. Azken txanpa dute udako oporrak ailegatu aurretik. Apirilaren 13tik 17ra bitarte 5. mailako hamabi ikasle eta 6. mailako bostz ikasle *English Week* programarekin Ilunberrin egon ziren. Goizetan 9:15etik 13:30era ingeleseko klaseak izaten zizuten, arratsaldetan berriz ekintza ezberdinak. Nafarroako hainbat eskolekin taldeka lan egitea suertatu zaie: Tafalla, Cortes, Azagra eta Narbartekoekin. Astea hagitz ongi pasatu omen zuten eta penaz bueltatu ziren.

**Herrera anaiek
berrez ere mendi
bizikletan**

Eneko eta Koldo Herrera anaiek Caja Ruralak antolatzen dituen BTT martxak hasi zi-

tuzten martxoan. Gaurero bi karrera izan dituzte Argedas eta Cascanten. Enekok Argedasen 8. postua lortu zuen, Cascanten berriz 7. Koldo anai gazteak Arguedas eta Cascanten bigarren postua lortu zuen.

Horrez gain, Euskadiko Openean ere parte hartzen ari da Eneko. Aramaion 8. postua lortu zuen eta Erandion berriz ez zuen suerte haundirik izan, laugarren zihola gurpila lehertu eta karrera utzi be-



UTZITAKO ARGAZKIA

Sunbillako bosgarren eta seigarren mailako ikasleak Nafarroako bertze herrietakoekin elkarlanean aritu ziren.

Ba al zenekien

Azken urteetan bezala, aurtengo Ikasturteari bukaera emateko Haur Hezkuntzako ikasleek berriz ere Nafarroako Gobernutik fruta jasoko dutela

har izan zuelako. Bertetik, Lizarran Superprestigio proban parte hartu zuen eta 21. postua lortu. Arnedon izan du bigarren karrera apirilaren 26an baina horren emaitzik oraindik ez dugu. Animo eta segi horrela. Zorionak.



ARGAZKIA: BIDAD IBARRA

Txindokira irteera

Ulibeltzak Mendi Taldeak bere irteerak egiten segitzen du. Apirilaren 19an Txindokira egin zuten irteera. Gutti joan baziren ere bista izugarriak ikusteko aukera izan zituzten, baita disfrutatze ere. Hurrengo, maiatzaren 1ean egiteko asmoa dute.



ARGAZKIA: MANTTALE

5 herritar Berako Mendi Maratoi Erdian

Apirilaren 19an XI mendi lasterketa antolatu zuten Beran. 500 korrikalari baino gehiagoren artean bostz sunbildarrek parte hartu zuten: Joseba Gartzia (argazkian), Gonzalo Errandonea, Iñigo Arrieta, Azu Carro eta Ana Coelhok. Zorionak denei.



BORTZIRIAK

BERTIZARANA

KULTURA → APIRILAREN 23AN EGINDAKO EKITALDIAN

Berako komiki lehiaketan sariak banatu dituzte

111 komikik parte hartu dute lehian

TTIPI-TTAPA

Berako Herri Liburutegiak eta Berako Kultur Batzordeak antolatutako Komiki Lehiaketako epaimahaiak saridunak jakitera eman ditu apirilaren 23an liburutegian izandako ekitaldi berezi batean (Liburuaren Nazioarteko Eguna). Saridunek erosketa bonu bat eskuratu dute Berako saltokietan erosteko. Lan batzuek aipamen berezia izan dute eta hauen egileek marrazteko materiala jaso dute.

111 lanek parte hartu dute lehiaketan. Lan saridunak ikusgai egonen dira liburutegian maiatzaren 8ra arte.



UTZITAKO ARGAZKIA

Saridunak Berako liburutegian.

A kategoria (10 urte arte)

- Saridunak: *Instituto-ko Mukizua*. Sara Goñi, Amaia Prieto, Alaitz Iriarte (Bera). Saria: 100 euroko erosketa bonua.

- Aipamen berezia: *Ongi etorri Euskal Herrira*. Aroa Martin, Maddi Ordoki, Nerea Ordoki (Bera).

B kategoria (11-15 urte)

- Sariduna: *Oroitzape-nak*. Maiane Sanchez (Bera). Saria: 200 euroko erosketa bonua.

- Aipamen berezia: *Ezkontza*. Maddi Navaridas, Ihintza Udaeta (Bera).

C kategoria (15 urtetik aitzinera)

- Sariduna: *Aitite Felipe*. Jabi Isasi (Izarra, Araba). Saria: 300 euroko erosketa bonua.

GIZARTEA → UDAL HAUTESKUNDEAK

Udaletxerako hautagai bakarra, kontzejuetarako alerik ere ez

Andres Etxenike izanen da alkate, EHBilduren izenean

TTIPI-TTAPA

Udal hauteskunde-tarako hautagaitza bakarra aurkeztu da Udaletxerako, EHBilduren izenean. Honela, lehendik EAren izenean alkate izana den Andres Etxenike Iriarte izanen da hurrengo lau urteetan ere alkate. Aldiz, Legasa, Narbarte eta Oieregiko kontzejuak kudeatzeko ez da hautagairik azaldu eta beraz, ez dute alkaterik izanen oraingoan.

BERTIZARANA

EH BILDU



Andres ETXENIKE IRIARTE

2. Blas Andresena Etxeberria. 3. Jose Antonio Sarratea Rekarte. 4. Jaber Grajirena Mutuberria. 5. Jose Antonio Jaurregi Juantorena. 6. Joakin Mutuberria Oteiza. 7. Jokin Uhalde Iribarren.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2015 UDABERRI-UDAKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948.230.634

DONEZTEBE

GIZARTEA → MAIATZAREN 1ETIK 3RA

VIII. Pintxo Lehiaketa prest dute asteburu honetarako

Zortzi partaide izanen dira

Marga ERDOZAIN

VIII. Pintxo Lehiaketa aurreko urtetan bezala, maiatzeko langilearen eguneko zubia aprobetxatuz antolatuta da. Pepa's kafetegiak eta Amezitia, Bixen, Ekaitza, El Café, Irrintzi, Titi eta Herriko ostatuek sukaldeak astinduko dituzte hiru egun horietan bertaratzen diren bezeroei mokadutxo goxoak eskaintzeko. Lehiaketa honi propaganda emateko erabilitako kartelaren argazkia ikusita, pintxo dastaketa honetan parte hartzeri aisa animatuko dira Doneztebarrak baita kanpotarrak ere.



UTZITAKO ARGAZKIA

ELAren ikerketaren alde busti da Doneztebarrak elkarte

Doneztebarrak Merkataria eta Zerbitzu Elkarteak ELA gaixotasunaren ikerketaren alde busti zen apirilaren 22an, Aparaneko parkean. Bertan Baztan elkartetik jasotako erronkari erantzun zioten Doneztebarrak elkartekoek eta, aldi berean, elkartasun katea ez eteteko bertze hiru elkarteri ere pasa diete lekukoa: Gazte Burrumba taldea, Doneztebeko Ehiztari Elkarteak eta Sunbite (Sunbillako Turismo Elkarteak).

Artisau erakusketan 17 eskulangilek parte hartuko dute: Bittoriano Arzuaga (artilea), Jose Luis Olaizola (grabatuak), Malu Alvarez (orfebrea), Jon Olaizola, Miguel Arregi, Daniel Fioramonte, Hamadi, Luis Mari Esarte eta Santiago Hualde (egurra), Fausti Jaunikorena (jantzizigintza), Maria Salanueva (xaboia), Jose Luis Arozena (guntak), Joxepa Loiarte (taloak) Eneko Rovira (ogia), Lourdes Gofñi (erroskillak), Maria Irueta (kanutiloak).

Eguna borobiltzeko bertako merkataria batzuek ere euren produktuek Merkaturako plazara aterako dituzte aurtengo udaberriko azokari kolorea eta bisitazuna emanez.

Udaberriko feria maiatzaren 8an

Udaberriko Feria ospatuko da Merkaturako plazan maiatzaren 8an. Aurtengo programazioan hiru ekitaldi azpimarratu behar dira: VIII. Ahari lehiaketa, artisauen erakusketak eta Doneztebarrak Merkatarien eta Zerbitzu Elkarte-koek jarritako postuak.

Ahari Lehiaketari dagokionez, Malerrekako Latxa arrazako ahari lehiaketa izanen da eta artzain bakoitzak nahi adina aurkezten ahal ditu. Sei sari banatuko dituzte; hiru mutur gorriendako eta bertze hiru mutur beltzendako: lehendabiziko saria 120 eurokoa, bigarrena 70 eurokoa eta hirugarrena 50 eurokoa.

FLASH

Nazioarteko Liburuaren Eguna

Nazioarteko Liburuaren Eguna bi ipuin emanaldi eskainita eta eskolako bi bisitarekin ospatu du liburutegiak. Ipuin ordua Haur Hezkuntzakoentzat eta LHko 1. eta 2. mailakoentzat antolatu zen eta DBHko 1. mailako ikasleek liburutegia bisitatu zuten. Bisita horretan ikasleek egindako *markapaginak* elkarri oparitu eta liburutegitik liburu bana hartu zuten institutuan lan-keta egin asmoz.

Iñigo Arregi bigarren


Azkoitiko duatloian bigarren izan zen Errekako Iñigo Arregi, Euskal Herriko zirkuituko lidertza sendotuz.

Judoan dominak

Joseba Bengotxea eta Cristina Aranbelek hirugarren postuak eskuratu dituzte Nafarroako txapelketan.

UDAL HAUTESKUNDEAK

EH BILDU



Xanti UTERGA LABIANO

2. Marga Erdozain Azpilikueta. 3. Leire Ortuoste Gartzia. 4. Peio Grazenea Esain. 5. Nerea Telletxea Santesteban. 6. Ion Etxekolonea Senar. 7. Pantxo Leiza Etxeberria. 8. Maialen Bellarra Eñeterreaga. 9. Luis Garde Iriarte.

PSN



Alfredo Lorenzo ZUGARRAMURDI ZOZAIA

2. Raquel Elorza Villanueva. 3. Jose Jabier Juanikorena Juanikorena. 4. Alicia Agesta Etxekolena. 5. Koldo Gartzia Izagirre. 6. Joseba Andoni Muro Konde. 7. Iker Berregi Mingegia. 8. Alberto Zuzarzen Bañares. 9. German Gallego Galindo.

PPN



Serafin LOPEZ FLOREZ

2. Sonia Oviedo Blazquez. 3. Jabier Jimenez Gil. 4. M^a Jesus Osma Caceres. 5. Luis Adolfo Iglesias Alvarez. 6. Sara Alonso De los Rios Martin. 7. Alfonso Salas Saiz. 8. M^a Pilar Navajas Martin. 9. Juan Carlos Luque Gartzia.

EUSKARA → UEMAREN ESKUTIK

Errenta Aitorpena euskaraz egiteko kanpaina abiatu da



egin euskaraz
Errenta aitorpena

TTIPI-TTAPA

UEMAK, Mankomunitateko kide diren Nafarroako udalekin elkarlanean, aurten ere errenta aitorpena euskaraz egiteko animatzeko kanpaina jarri du abian, iaz baino datu hobekak lortzeko asmo eta helburuarekin.

2014 urteari dagokion errentaren gaineko aitorpena egiteko kanpainan, zergadunek bi bide dituzte euskaraz egiteko. Horretarako, lehen urratsetik zein hizkuntzatan egin nahi duten aukeratu behar dute. Alde batek, finantza erakundetara joan eta bertan egiten dutenek errenta euskaraz egiteko eska dezakete zuzenean. Berte aldetik, etxera igina iristen den kasuetan, aurten ez dute deus egitekorik, baina hurrengo urteei begira bai eta behin euskaraz eskatuta gainera hurrengo aldi-tan euskaraz iritsiko da. Eskaera Nafarroako Ogasun sailean egin behar da, 948 505152 telefonora deituz edo webgunearen bidez.

Azken batean, kanpainaren bitartez, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskarazkoak izan daitezten bultzatu nahi da. Bide horretan, errenta aitorpena euskaraz eginda euskarari bide berriak irekitzeaz gain, administrazioaren eskalduntzea ere bultzatu nahi da.

Unibertsitatea,
inguruko gizartearekin
inplikatzeari bada.

erronkarako #prest

Katalin Madariaga,
Lidergo ekintzailea eta berrikuntza,
3. maila.

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

DONOSTIALDEA · MAIATZAK 9

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · MAIATZAK 16

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI · MAIATZAK 21

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA · MAIATZAK 9

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · MAIATZAK 16

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO · MAIATZAK 23

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN
FAKULTATEA

ESKORITAZA · MAIATZAK 30

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · MAIATZAK 30

Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 23

Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



ITUREN

GIZARTEA → «HERRI TTIKI, INFERNU HANDI» SAIOAN

Herriko bazter eta pertsonaiak telebistan agertuko dira

Maiatzaren 10ean emanen dute ETBn

Arkaitz MINDEGIA

Euskal Telebistan egiten den *Herri ttiki infernu handi* programan herriko baxter eta jende xelebreak agertuko dira maiatzaren 10ean. Apirilaren 13an egin zituzten grabaketak. Herriaren aitzinean programaren aurkezpena, monologo eta bertsoekin, berriz, Aurtizko frontoian egin zuten apirilaren 25ean. Irri eta algara artean joan zen dena.

Ehuntze egunaren ondotik egun handiaren esperoan

Apirilaren 25ean Malerrekako Gure Esku Dagok antolatu zuen Ehuntze eguna. Lehena gotik, Ituren eta Aurtizko arduradunek oihal zatiak saldu zituzten herri-tarren artean, apaindu eta pertsonalizatzeko. Horrela, ekainaren 21ean Iruñean eraikiko den hautetsontzi erraldoian gure herrietako oihal zatiak izanen dira.

Ibai Berregi Berako maratoi erdian

Aurtizko Ibai Berregi apirilaren 19an Berako maratoi erdian parte hartu zuen. Bere lehen mendi lasterketa

izateko sentsazio ederrarekin geratu zen. 2 ordu eta 22 minutu behar izan zituen akitzeko.

Ugaitz txapeldun

Orain lesionatua dago, baina aitzinetik ederki jokatzeko zebilena Ugaitz Elizalde pilotaria. Jabier Goñi memorialaren final gogorra eta parekatua irabazi zion Olai-zola lesakarrari, txapela irabaziz.

Jabier Sein errepidean

Mendi bizikletako probetan ez ezik, errepideko karreretan ere debuta egin du Jabier Sein txirrindulariak, apirilaren Lizarran pare bat karrera egin zituen. Debutean 5. postuan lortu zuen eta bertzean, Premio Area 99ko karreran 11. postua.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Zuhaitz Gurrutzagak eta Pagadik Ituren eta Aurtizko bazterrek harrotu zituzten eta jende bereziarekin topo egin zuten *Herri ttiki infernu handi* saiorako grabazioan. Nola ez, joaldunen ardilarruak eta joareak jantzi gabe ezin izan zuten alde egin.

MAIATZAREN 14AN

Malerrekako Literatur Solasaldia Iturengo Herriko Etxean Danele Sarriugarterekin

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Literatur Solasaldia maiatzaren 14an (ortzeguna) arratsaldeko 7,30ean egingen da Iturengo Herriko Etxean. Danele Sarriugarte idazlearen *Erraiak* liburua landuko da, idazlea bertan dela eta bere testigantzarekin.

Literatur solasaldiak ekimena 2013ko udaberrian sortu zuen Malerrekako Mankomunitateko Euska-

ra Batzordeak, liburu bati buruzko mintzaldia idazlearekin partekatze-ko asmotan. Liburua Literatur Solasaldietan parte hartzen duten pertsonak aukeratzen dute. Ekimen honen alde onetako bat, idazlea bera ezagutzeko aukera izateaz gain, idazlearekin zenbait gairen inguruan sortzen den mintzatzeko aukera da: zer gustatu zaion, edo zer ez, zein atal iruditu zaion berezia...

HAUTESKUNDEAK

EH BILDU



Mª Jose
BERAU
BALEZTENA

2. Jagoba Manterola Ruiz. 3. Mikel Gereka Zelaia. 4. Jose Mª Altzuri Bertiz. 5. Jabier Berau Mitxelena. 6. Karmelo Aioroa Uhalde. 7. Izaskun Altzu Ariztegi.

ZUBIETA

GIZARTEA → ASPALDIKO OHITURAK

Maiatzeko Aingeruak hasiko dira besta eguneko elizkizunetan laguntzen



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Maiatzeko aingeruek udaberri parteko elizkizunetan lagunduko dute, tartean Bestaberri egunean. Argazkian, joan den urteko Bestaberri eguna.

Herriko sei neska izanen dira, Bittori Erasunen gidaritzapean

Malerrekako Egunerako mus txapelketa

Malerreka Egunerako Mus txapelketarako sailkatzeko kanporaketa egingen da maiatzaren 15ean Errandonea ostatuan, gau partean. Ez da sari berezirik izanen, bakar-bakarrik Elgorriagan maiatzaren 30ean ospatuko den Malerrekako Eguneko mus txapelketarako txartela txapeldunarentzat. Partehartzearen arabera, azpitxapelidunak ere joateko aukera izan dezake.

Heriotza

Fermineneko Jesus Santesteban Mutube-

rria hil zen apirilaren 12an, 88 urterekin. Doluminak familiari eta Joxepa Loiarte bere alargunari.

Bi hautagaitza udaletxerako

Maiatzaren 24ko udal hauteskundetarako bi hautagaitza aurkeztu dira herrian. Herriko Taldeak gaur egun zinegotzia den Ernesto Dominguez Olea izanen du alkategai eta azken legealdietan alkate izan den Patxi Mitxelena ere zerrendan ageri da. Zubietarrak taldeko alkategaia, berriz, Mikel Telletxea Santesteban gaztea izanen da.

UDAL HAUTESKUNDEAK

HERRIKO TALDEA



Ernesto DOMINGUEZ OLEA

2. Imanol Baleztena Elizalde. 3. Leire Bazterrika Loiarte. 4. Francisco Mitxelena Zelaieta. 5. Ezekiel Loiarte Santesteban. 6. Jose M^a Mitxelena Erasun. 7. Igor Babaze Baleztena.

ZUBIETARRAK



Mikel TELLETXEA SANTESEBAN

2. Mikel Ivan Indakotxea Jaunarena. 3. Urko Loiarte Etxekolonea. 4. Ibai Juanikorena Lakar. 5. Gorka Fuentes Mugika. 6. Ainhoa Larrea Lekuberria. 7. Miguel Jose Mindegia Mutuberria.

ZURE USTEZ, IRITSIKO AL DIRA BEREN KASA BIRZIKLATZERA? EGIZU GOGOETA BIRZIKLATU ZURE TEEHak

Tresna Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak

Eraman zure tresna zaharra, berria erosten duzun dendarara, edo erabil itzazu zure mankomunitateko zerbitzuak: tamaina handikoekin bilketa zerbitzua edo garbigune finkoa eta mugikorra. Galdetu zure mankomunitatean

HORMIGOI ETA ZUREZKO EGITURA DUTEN ETXEBITZEN PROIEKTU ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOAK

Fernando Orset Mauleon arkitektura
Frain Auzoa, 27 IGANTZI 615 700 007

EZKURRA

GIZARTEA → BOLUNTARIO TALDE BATEN ESKUTIK

Bisitak eta ibilaldiak egiten dituzte herrian zehar


Inguruko mendietan ere historiaurreko aztarna ikusgarriak

Fernando ETXEBERRIA

Herriko boluntario batzuek denbora dezente daramate herrian zehar bisita eta ibilaldiak antolatuz, bideak txukundu eta seinalizatzen. Herri-gunean bertan badira zenbait toki interesgarri: Portunea etxeoko tximinia handia eta 10 metroko altuerako ganbara, eliza, ermita, bilabaderoak, Hamarrendegia, frontoian dagoen jauntxoan armarrak eta hainbat etxe berezi. Eta herri-gunetik zertxobait aldendu eta inguruko paisaiez gozatu nahi dutenek ere badute aukera. Ibilaldietako bat ermitan hasi eta Putzu Handira doa, Perrale-

kura igo eta herrira jeisteko, tarte horretan primeran kontserbatu den kisu-iabe bat dago. Beste aukera bat, Barranka ostatutik hasi eta Erakurrira igotzea da, bertatik hiru trikuharri ikus litezke, Aztun, Malo (Cromlech haundi bat ere badago bertan) eta Ezkaingoa. Erakurrira gainera igo, Ezkainera jetsi eta Olegin barna segi ondotik, cromlech bat, menhir bat eta bi trikuharri ikusi litezke. Bide horretatik segita, Iruñarriko menhirra iritsiko gara, Nafarroako garrantzitsuenetakoa. Ibilbidearen puntu honetan bi aukera ditugu; seinaleei segika herrira jeistea edo zazpi megailito inguru dauden bide hartzea. Ibilbide hau Nikolaurenean hasi beharrean Perralekutik ere hasi liteke.

Basakaitzek aipamen berezia merezi du, oso



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Herrian zehar bisita eta ibilaldiak antolatzen dituzte.

ongi mantenduta dago eta hainbat kilometroko ibilbidea osatzeko aukera ematen du erreka bazterretik, ur-jauzi ederrak ikusiz. Zaindu beharreko eremua da duen balioagatik.

Basakabitik Goizuetara aldera doan errepide ondoan Ollingo meartzen arrastoak ere topatu litezke, egoera onean daude erabiltzen zituzten tunelak. Garai

batean 25 borda baino gehiago egon ziren paraje hauetan, batzuk interesgarriak bere egituragatik.

Udal hauteskundeak

Herriaren alde lan egitea aberasgarria den arren, batzuetan oinarri gabeko kritikak ere entzun behar izaten dira. Maiatzaren 24ko udal hauteskundetarako

IDOIA

1. Julian Gogortza Jauregi. 2. Pedro M^a Zestau Juantorena. 3. Miguel M^a Lasarte Mariezkurrena. 4. Miren Jaione Zabalo Juantorena. 5. Jose M^a Gogortza Jauregi.

Idoia izeneko hautagaitza aurkeztu dute, tartean gaur egungo alkateta dagoela.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Lizun
GAZTANDEGIA



Sunbilla · Tel: 948 450 862

Alberto RETEGI
abokatua



© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

DONAMARIA

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 13TIK 17RA

Egitarau zabalarekin dator aurten ere Kulturaldia

TTIPI-TTAPA

Aurten ere egitarau zabalarekin dator Donamaria-Gazteluko Kulturaldia.

ASTEAZKENA, MAIATZAK 13

- 18:00etan Batukada amateur erakustaldia plazan.

ORTZIRALA, MAIATZAK 15

- 19:00etan talo tailerra frontoian eta ondotik

berendua nahi duten guzientzat.

- 22:00etan mustxapelketa Herriko Ostatuan.

LARUNBATA, MAIATZAK 16

- 10:00etan Zumba saio irekia frontoian.
- 12:00etan Mendaur trikitixa eta pandero eskolako haurren kalejira.
- 15:30ean Etxepare Al-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Mendaur trikitixa eta pandero eskolako ikasleak kalejiran ibiliko dira aurten ere.

bum ilustratu lehiaketako lanetan oinarritutako tailerra erabilera anitzeko gelan. Lehenik 4-8 urtekoak eta gero 8-12 urtekoak.

- 19:00etan Batukadapoteoa herrian barna.
- 21:30ean afari musikatua Herriko Ostatuan.

IGANDEA, MAIATZAK 17

- 10:30ean mendi ibi-

laldiak eta gosaria Laztaiko bordan. Bi ibilbide izango dira, haurrentzako eta helduentzako.

- 19:00etan antzerkia Donamariako Jauregian.

HAUTESKUNDEAK

HERRIARENGATIK



**Maite
URROZ
OIAZABAL**


2. Eneko Rekarte Oteiza.
3. Iñigo Ezkurra Leonet.
4. Mikel Goñi Etxeberria.
5. Mikel Iriarte Antxorena.
6. Oihana Tellexea Garmendia.
7. Mikel Arregi Mindegia.

Ba al zenekien?

Malerreka Kantuz ekimena Donamarian eginen dela, maiatzaren 2an, larunbatean 12:00etan Herriko Ostatutik abiatuta.

DONEZTEBE
ELIZAGIBELA KALEAN

LAISTER ERAIKITZEKO



PISUAK
TRASTELEKUAREKIN
SALGAI

106.000€tik
hasita

GARAJEAK

LOKAL KOMERTZIALAK

948 450 133

www.pisossantesteban.com

MALERREKA

GIZARTEA → DONEZTEBEN HIRU ZAKU

Mankomunitateak banatu ditu lehen konpost zakuak

Donezteben 50 familiek egiten dute auzo-konposta eta Malerrekako bertze herrietan 40 familiek

Marga ERDOZAIN

Malerrekako Mankomunitateak konpost lehorreko hiru zaku banatu ditu Doneztebeko bizilagunen artean. Aipatu behar da lortutako konpost hau Elizagibelako auzo konpost gunitik ateratakoa dela. Gogoratu behar da Do-

nezteben 50 familia inguru apuntatuak daudela ekimen honetan eta une honetan martxan lau gune badaudela: Elizagibela, Zazpigerutze, Mourges eta Rosa Seminario. Familia haueztaz gain, Malerrekako gainerako herrietan badira bertze 40 familia gehiago auzo-konposta egiten ari direnak. Kopuru honi goitu behar zaio etxetan konpostgailua duten familiak, 524 alegia.

Lehendabiziko emaitza honek erakusten du bertako Mankomunitatek egindako kanpainak fruitu ederra eman duela, azken urte hone-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Ehun akordeolari baino gehiago bildu ziren Donezteben

Nafarroako Soinalarien Topaketa egin dute igande honetan, apirilaren 19an, Donezteben. Ehun akordeolari baino gehiago elkartu ziren eta bi ordu eta erdiko kalejira dotorea eskaini ondotik, taldeko argazkia atera eta Santamarian bapo bazkaldu zuten. Duela bi urte Lesakan egin zuten topaketa, iaz Otsagin eta heldu den urtekoa non egingen den oraindik erabaki gabe dute.

tan %15a igo baita Bertizarana eta Malerrekako egiten dutenen kopurua (une honetan %21,75a izanda). Emaitza hauek ere erakusten dutena da zabor guttiago sortzeak duen garrantzia eta behin sortutakoari aterabidea bi-

latu behar zaiola, baita hondakin organikoak ongarri bihurtzea posible dela ere. Etorbizunari begira, bertako teknikaria den Miren Mangadoren hitzak aipatu: «erabiltze kopuruak igotzen segitzen badu eta modu honetan la-

nean segitzen badugu, Europako legealditik finkatu dizkiguten helburuak lortzeko bidean izanen gara. Baina jendeak bere partetik esfortzua egin behar du, gure kanpainetan parte hartu, denon artean helburuak lortzeko».

GIZARTEA → UDAL HAUTESKUNDEAK

Herri guztietan aurkeztu dituzte hautagaitzak

Oizen bi talde aurkeztu dituzte

TTIPI-TTAPA

Ez da erraza izaten Malerrekako herri ttikietan udaletxerako ze-

rendak osatzea eta zenbait urtetan, lehenbiziko deialdian hutsean ere gelditu izan dira alkatearen eta zinegotzien aulkia, inor aurkeztu ez zelako. Aurten, aldiz, ez da halakorik eta herri guztietan hautagai-

tza bat bederen aurkeztu da, Herriko Etxe-an lana egiteko prest. Herriz herriko kroniketan bildu ditugu hautagaitza horiek eta hemen ageri dira gainerakoak. Aipatzekoa, Oizen bi talde aurkeztu direla.

OIZ

BERRIKUNTZA

1. Luis Miguel Iarregi Elizaintzin.
2. Jose Jabier Zia Lakuntza.
3. M^a Paz Zia Oteiza.
4. Sergio Barrikart Lisarri.

ALKARTASUNA

1. Iñaki Ariztegi Irigoien.
2. Miguel Ziganda Larraburu.
3. Andres Oteiza Lizasoain.
4. Jaime Urroz Tellexea.

BEINTZA-LABAIEN

HERRIARENGATIK

1. Jon Telletxea Juanenea.
2. Alejandro Saldias Otxandorena.
3. Jesus Juan Bertiz Goñi.
4. Jose Martin Mindegia Labaien.
5. Jokin Arzallus Alberro.

ELGORRIAGA

ELGORRIAGA

1. Jose Ignacio Olazar Apeztegia.
2. Juan Miguel Sukilbide Olazar.
3. Juan Jose Perez de Arriluzea Sagasti.
4. Mattin Larralde Ibarrola.
5. Fco Jabier Bertiz Urroz.

URROZ

ALKARTASUNA

1. Iñaki Juanena Santesteban.
2. Jesus M^a Ezkurra Legazkue.
3. Patxi Urroz Telletxea.
4. Xabier Matxiñena Maritorea.
5. Xabier Mariezkurrena Agesta.

SALDIAS

INDEPENDENTEAK

1. Jacinto Dominguez San Nazario.
2. Julian Erasun Erasun.
3. Jose Luis Erasun Erasun.
4. Fco Jabier Mitxeo Mariezkurrena.
5. Jose Ramon Etxeberria Benito.

ERATSUN

LATARGI

1. Patxi Retegi Deskarga.
2. Patxi Mariezkurrena Deskarga.
3. Juan Antonio Telletxea Santesteban.
4. Jabier Jaurena Meskiriz.
5. Nagore Eskuidero Baleztena.

OSPAKIZUNAK → MAIATZAREN 1 ETA 2AN

Txinoko fiestak ekitaldiz gainezka datoz asteburuan

Larunbatean herri krosa ere egingen dute, 9 kilometroko ibilbidearekin

TTIPI-TTAPA

Ohiturari segituz, maiatzeko lehenbiziko asteburuan Goizuetan zubiz bestaldera dagoen Txino auzoko festak izango dituzte, Gazte Asanbladak, Ezker Abertzaleak, Zubiondok, Udalak eta Umore Onak antolatuta. Ostiralean, maiatzaren 1ean, Julio Soto eta Xabier Legarreta bertso-lariek emango diete hasiera festei 20:30ean, Zubiondo tabernako bertso saioarekin. Gauean 22:30ean Mus txapelketa jokatu da taberna berean. Bikote txapeldunak arkumea eramango du etxera eta azpitxapeldunak txuleta eta txakolina.

Unai Loiarre izanen da alkate

EHBilduk bakarrik aurkeztu du hautagaitza

TTIPI-TTAPA

Unai Loiarre Ansa, uztailaren 2an 25 urte beteko dituen gaztea izanen da herriko alkate datozen lau urteetan, EHBilduk aurkeztu du-



UTZITAKO ARGAZKIA

Txakolindegira ateraldia

Argazkian ageri denez, umore ederrean ibili ziren Umore Onak antolatuta Ameztoi txakolindegira apirilaren 18an egindako ateraldian.

Larunbatean, maiatzak 2, Umore Ona elkarteak, Gazte Asanblada, Eskola, Guraso Elkarte eta Udalaren laguntzaz antolatutako Herri Krosa egingen da 11:00etan, 9 kilometroko ibilbidearekin. Ordu bete lehenagotik dortsalak hartzeko aukera izanen da. www.herrikrossa.com webgunean eman daiteke izena.

Herrikoek 8 euro ordaindu beharko dute parte hartzeko eta kanpo-koek aurrez 10 euro eta bertan 15 euro. Zubimuxu aterpeak ere eskaintza berezia dauka eta bezperatik datozenek afaria, gaua, gosaria eta krosean parte hartzeko aukera izanen dute 40 euroren truke. 12:00etan

festei hasiera ofiziala emateko txupinazoa botako da trikitilariak alaituta eta ondoren dragoia aterako da giroa alaitzera. 12:30ean kroseko sari banaketa egingen da. 14:30ean herri bazkaria izango da Goiko Frontoian. Bazkaltzera joan nahi dutenek txartelak salgai dituzte Amaia kafetegian.

17:30ean Shamaliats Bellydance sabel dantza ikusteko aukera izanen da eta ondoren Gorka eta Olatz trikitilariak ariko dira giroa alaitzen. Gauerditik aurrera kontzertuak izango dira Skarmentu eta Sota de Birras taldeekin.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Gazteak eta beterranoak uztartzen ditu datozen lau urterako udaletxeko taldeak.

en hautagaitza bakarren alkategaia baita.

EHUn Zuzenbidean lizentziatua da lanerako

gogoz aurkeztu den taldearen burua.

KIROLA

II. Goizutrail laisterketa maiatzaren 16an da

TTIPI-TTAPA

Aurreko alean akatsa egin genuen eta data aldatu genion II. Goizutrail lasterketari. Maiatzaren 16n izango da. Gainerakoan, aipatu bezala, bi ibilbide izanen dituzte aukeran korrikalariak, 10 eta 25 kilometrokoak. Azken honetan, desnibela 1.636 metrokoa da eta ibilbide guztia mendiko xenda pista eta larrean zehar izango da. Izen ematea zabalik dago www.herrikrossa.com webgunean.

HAUTESKUNDEAK

EH BILDU



Unai LOIARRE ANSA

2. Daniel Oiarzabal Larraburu. 3. Itsaso Lujanbio Apezetxea. 4. Josu Garmendia Rekalde. 5. Mari Jose Aizpuru Santesteban. 6. Zuriñe Lujanbio Zabala. 7. Pili Apezetxea Elizalde.

ARESO

UDAL HAUTESKUNDEAK → ARESO ERAIKIZ TALDEAREN BURU

Ur Algero izango da datozen lau urteetan ere alkate

Zerrenda bakarra aurkeztu denez udala osatu da

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 24ko hauteskundeetarako Areso Eraikiz taldea izan da herrian aurkeztu den hautagaitza bakarra. Ur Algero, egungo alkatea, da zerrenda burua, eta bera izango da datozen lau urteetan ere alkate.

FLASH

Wi-fi zerbitzuaren ordainketa

Udalaren wi-fi sarean erregistratuta daudenek maiatzaren 27rarte epea dute ordainketa egiteko, hortik aurrera gainkargua gehituko zaio.

Josten eguna maiatzaren 8an

Gure Esku Dagoko lantaldea martxan jarri da aurtengo dinamika-ri heltzeko eta Areson zenbait hitzordu izango ditugula aurreatu digute. Aurtengo zita nagusia ekainaren 21ean izango da, Iruñean. Ekitaldi hori egin aurretik, hilabete batzuk badaudenez, lehendabizi herria informatu eta girotu behar dela esan digute eta horretarako lehenengo ekintza maiatzaren 8an izango dugu, udaletxeko goiko solairuan arratsaldeko 19:00etan. Bertan materiala jarriko da salgai, aurtengo dinamikaren berri emango da eta "Jostunak" dokumentala ikusteko aukera izango da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ekainaren 21eko ekitaldiaren aurretik, herriz herrikoak prest.

Heziketa eta hezkuntza gastuak ordaintzeko diru-laguntzak eskura

Aresoko udalak ikasleei diru laguntzak ematea erabaki du heziketa eta hezkuntza gastuak ordaintzeko. 2014an burututako ikasketei dagozkien laguntzak eskatu litezke; egiaztatzen den gastuaren %50a, gehienez ere 100 euro urteko eta ikasleko. Laguntza jaso ahal izateko baldintzak hauek dira: 16 urte bitarteko gazte eta haurrak izatea, Areson erroldatuta egotea gutxienez urtebeteko antzintasunarekin, egindako gastua egiaztatzea faktura, ordainagiri edo antzeko agirien bidez eta kirol jardueri dagokienez ikastaro ez lehiakorrik hartuko dira kontuan. Idatzizko eskaerak maiatzaren 4tik 15era aurkeztu behar dira udal idazkaritzan.

ARESO

ARESO ERAIKIZ



Ur ALGERO TXIBITE

2. Jon Gurrutxaga Etxeberria. 3. Asun Arratibel Onsalo. 4. Jabi Belauntzarán Mariezkurrena. 5. Eden Algero Txibite. 6. Txomin Zubilaga Uranga. 7. Mikel Barri-bar Garmendia.

ARANO

Udalerako bi zerrenda ustekabeen

Normalean bat osatzeko nahiko lan izaten da, baina aurrean udaletxerako bi zerrenda aurkeztu dira: Gaur egungo lan taldea biltzen duen Herri Aierriz eta herritar bakar bat ere ez duen UPN.

ARANO

HERRI AIERRIZ

1. Xabier Legarreta Etxarri. 2. Maider Ansa Zugarramurdi. 3. Joxean Ruiz Miner. 4. Maitane Sarobe Olaetxea. 5. Ainhoa Ansa Zugarramurdi.

UPN

1. Joana Balentzia Balentzia. 2. Felix Cia Jimenez. 3. Natalia Salanueva Etayo.

MEKNA
MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

Bagoaz, baguzi, bagazi
ttipi-ttapa haziz!

Leitzako harpidedunei deika hasiko da Ttipi-Ttapa lankide bat, albiste onak ditugu eta zuei emateko.

Nafarroako Gobernuak 'gizarte-intereseko' deklaratu du Ttipi-Ttapa Fundazioa eta, hartara, gobernuak babesten dituen MEKNA proiektuen artean sartzea lortu dugu (Nafarroa osoko beste 91 proiektuekin batera).

Horren arabera, MEKNA dauden proiektuei emandako laguntza edo donazioek %80 desgrabatzen dute errentaren aitortpenean.

Horregatik aurrerantzean Leitzako harpidedunek bi aukera izanen dituzue:

1. Urtean **18 euro ordaindu** eta trukean 24 aldizkari jasotzea.
2. Urtean **50 euroko donazioa egin** eta, hurrengo urteko errentaren aitortpenean **40 euro hartzea bueltan. 24 aldizkariak 10 eurotan** aterako lirakeke.

Gainera, 50 euroko donazioa egitea erabakitzen duzuenok Ttipi Txartela ere jasoko duzue opari. Txartel honekin, Leitzako hainbat komertziotan deskontuak izanen dituzue eta hamabostero zozketa batean parte-hartuko duzue.


OSPAKIZUNA → ELKARTASUN TALDEAK ANTOLATUTA

Amnistia eguna antolatu dute maiatzaren 9an

Bideo emanaldia, mahai ingurua, bazkaria...

JM BARRIOLA

Leitzako Elkartasun Taldeak Amnistia Eguna antolatu du maiatzaren 9an. Goizeko hamarretan Atekabeltzen bideo emanaldia izanen da. Bertan, amnistia mugimenduaren bilakaera ikusteko aukera izanen da. Ondoren mahai ingurua antolatu dute Philippe Bidart, Elias Fernandez, Idoia Iragorri eta Josu Ormaetxearekin. *Amnistia aldarrikapen historikoa iragantik etorkizunera* gaia izanen dute hizpide. 14:00etan bertso bazkaria izanen da Aitor Mendiluze eta Jone Uriarekin. Bazkarirako txartelak Torrean erosi litezke 18 euroren truke. Eta arratsaldean, kalejira eginen dute Atekabeltzetik Plazaraino.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

DBH 4ko ikasleak mendiko zaborrak biltzen ari dira

DBH 4ko ikasleak zaborrak ateratzen ari dira menditik. Arrola parajeetan Uitzialdera doan errepide inguruetan, urteetan metatutako zaborrak daude. Bost lagunek taldeak antolatu eta ostiralean garbiketa lanari ekin diote gazteek. Urtero Leitzako txoko desberdinetan egiten dituzte garbiketa lanak ikasleek eta lan hauetan truke, udan ikasbidaia egiteko laguntza ematen die herriak.

FLASH

Garraio publikoan dauden beharrak hizketagai maiatzaren 7an

Herriko garraio publikoan dauden beharrak aztertzeke zuzeneko 300 elkarrizketa egin dituzte herritarrekin. Bildutako emaitzak maiatzaren 7an aurkeztuko dituzte 19:00etan Udaletxeko Batzar aretoan.



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Aralar Txirrindulari Taldea denboraldi berriari ekiteko prest

Aralar Txirrindulari Taldeak aurtengo denboraldiko aurkezpena egin zuen Leitzan apirilaren 18an. Taldeko txirrindulari gehienak Sakana aldekoak badira ere, badaude tartean ingurukoak, Beñat Etxezarreta aresoarra eta Mikel Martinez-Barranco leitzarra, hain zuzen. Taldea 37 kirolarik osatzen dute, 26 eskolan, 7 kadete eta 4 jubenil.

INGURUMENA

Ixkibar aisigunea txukuntzen ari da Udala

Eguraldi onak hasi direnez, Udala Ixkibar aisigunea txukuntzen hasi da. Sutarako egoitutako parrilak berri-tu dira lehenik eta Guardetxeko tximinian ere berria jarria da. Ingurua garbitu eta txukundu eta aisigunea iragartzen duen seinale berria ere jarri da. Uda bitartean hesiak osatzen eta lan desberdinak egiten joanen dira. Honetaz gain, Izaieta Monumentu Naturalean dagoen ibilbideko zuhaitzak identifikatzeko seinaletoak ere berri-tu dira. Guztira 39 zuhaitz mota bereizi dituzte. Aurretik 2008an jarri ziren seinaleak eta asko galduak zeuden.

UDAL HAUTESKUNDEAK

EH BILDU



Mikel ZABALETA ARAMENDIA

2. M. Andone Salbarredi Azurmendi. 3. Eneko Andueza Aramendia. 4. Ohiane Calderon Callejas. 5. Iñaki Zabaleta Zabaleta. 6. M. losune Marzol Ormazabal. 7. Markel Azkargorta Cid. 8. Onintza Bengoetxea Zabaleta. 9. Julian Zabaleta Alduntzin. 10. Arantxa Iparragirre Baleztena. 11. Olatz Gerreño Eraso.

UPN



Jose Miguel GOIKOETXEA ZABALETA

2. Silvestre Zubitur Goñi. 3. Lorenzo Zubitur Billabona. 4. Fermin Azpiroz Martinikorena. 5. Pedro Urkiola Zestau. 6. Jose Juan Larraalde Cereales. 7. Miguel Angel Zubitur Billabona. 8. Juan Jose Zestau Zestau. 9. Juana Josefa Sagastibelza Zabaleta. 10. Juan M^a Zubitur Billabona. 11. Felix Gerardo Caballero Azpiroz.

BAGOAZ BAGUZI BAGAZI
 HAZIZ
 ttipi-ttapa haziz!
 TTIPI-TTAPA



zuk 50€ ttipi-ttapari ematen badizkiozu
 40€ berreskuratuko dituzu
 2015eko errenta aitortpenean
 % 80ko desgrabazioa errenta aitortpenean



...eta zure ekarpenekin zer egingen du Ttipi-Ttapak?

- Aldizkaria hamabostero argitaratu eta zure etxera eraman
- Web orriaren eta sare sozialen bitartez egunero informazioa zabaldu
- Eskualdeko berriak landu...

ETA GUZTIA
 EUSKARATIK ETA EUSKARAZ



Malerreka, Bertizarana, Baztan, Urdazubi eta Leitzakoa bazara guk deituko dizugu.

Gainerakoak informazioa lortu nahi baduzue deitu

948 635 458 telefono zenbakira edo gurekin harremanetan jarri bagoaz@ttipi.eus posta elektronikoan

GIZARTEA → MARTXOAREN 13AN

Udalak hitzarmena sinatu du Som Energia kooperatibarekin

Agozpeko zentralak sortzen dituen jatorrizko bermeak transferitzeko

TTIPI-TTAPA

Som Energia / Energia gara energia-kooperatibak eta Balleko Etxeak hitzarmena sinatu zuten Agozpeko zentral hidroelektrikoak sortzen dituen jatorrizko bermeak kooperatiba horri transferitzeko.

Ziurtagiri horiek energia elektrikoaren komertzializatzaileek beren erabiltzaileei saltzen dien energia % 100 berriztagarria dela ziurtatzeko duten prozedura ofiziala dira.

Lagapen horri esker, hemendik aitzina *Som Energia/Energia gara*-k bere Nafarroako bazkideei komertzializatzen dien energiak Baztango jatorrizko bermeak izango ditu eta horrela agertuko da fakturretan. Ekintza horrekin Baztango Udalak gaur egungo energia-eredua aldatzeko duen konpromisoan bertze pauso bat gehiago eman du. Hitzarmenaren sinatze ekitaldian Mikel Ortega Udaleko alkateordeak erran zuenez, honako hau hasmenta baizik ez da aitzinago energia, efizientzia, udalerrin ahalduntzea eta iraunkortasuna bezalako gaien inguruan elkarren arteko ekintza gehiago egingen baitira.

Som Energia/Energia gara-ren izenean Alex Arizkunek Udalari eskerrak emanez akituz sinadura ekitaldia.



UTZITAKO ARGAZKIA
Agozpeko zentral hidroelektriko-uraren eraberritzearen erakusgarriak dira» diote Udaletik.

Legegintzaldi honetan egin diren efizientzia arloko lan eta inbertsio batzuk diru arrezte nabarmena ekarri omen diote Udalaren diru poltsari eta gehiago ere ekarriko dizkionte lan ildo horretatik ja-

rraituz gero. «Egindako lan horiek ingurumena zaintzeko konpromisoaren eta herritarrak eskura dituzten energia-iturrien gaineko erabakimenean ahaldudu nahiaren erakusgarriak dira» diote Udaletik.

UDAL HAUTESKUNDEAK

EH BILDU



Joseba OTONDO BIKONDOA

- Mikel Ortega Arraztoa.
- Maite Iturre Llanos.
- Juan Kruz Iriarte Bañez.
- Oianko Garde Jaunsaras.
- Xabier Torres Letona.
- Pili Migeltorena Etxenike.
- Mariano Iribarren Irigoien.
- Juana Mari Gortari Oteiza.
- Ramontxo Garmendia Zelaia.
- Maite Oteiza Apezetxea.
- Jon Elizetxe Bidegarai.
- Izargi Zumarraga Etxandi.

EZKERRA



Florentino GOÑI TELLETXEA

- Iñigo Iturralde Elizetxe.
- Elena Arretxea Mitxelena.
- Kristobal Zelaia Oharriz.
- Marta Irigoien Etxebeste.
- Fermin Barazabal Irigoien.
- M^a Resurreccion Elizagoien Etxagarai.
- Unai Apeztegia Petrirena.
- Izaskun Amiano Iriarte.
- Pedro M^a Berho Iriarte.
- M^a Belen Iturbide Lucas.
- Nestor Arturo Charanchi Saavedra.
- M^a Lourdes Oharriz Martikorena.

BAZTAN AUZOLANEAN



Alejandro MARTIN IBARRA

- M^a Jose Pagazaurtundua Idiart.
- Naiara Oteitza Razkin.
- Imanol Juanikotena Taberna.
- Roberto Irigoien Iriarte.
- Gorka Oteiza Razkin.
- Ainara Mariezkurrena Salaberri.
- Andoni Salaberri Prados.
- Ander Mariezkurrena Salaberri.
- M^a Aranzazu Agirre Azkarraga.
- Fco Jabier Arregi Arregi.
- Itziar Goienetxe Agirre.
- Lander Santamaria Alcocer.

GEROA BAI



Ruben ZIGANDA SANZ

- Joseba Moreno Bidegain.
- Edurne Goñi Otxandorena.
- Mikel Garbalena Goñi.
- Alicia Aleman Arrastio.
- Fco Jabier Zabaleta Andresena.
- Jon Bergaretxe Urdanpilleta.
- M^a Dolores Valverde Lamsfus.
- M^a Nelida Oiaga Oieregi.
- Jabier Baiona Iturrarte.
- Belen Apaolaza Zaldua.
- Virginia Aleman Arrastio.
- Pello Salaburu Etxeberria.

UPN



Begoña SANZBERRO ITURRIRIA

- Isabel Olabe Ballarena.
- M^a Carmen Iribarren Iribarren.
- Jose Jabier Agirre Azkarraga.
- Marco Molina Irazoki.
- Leopoldo Jaen Sobrino.
- Sara Velazquez Arizmendi.
- Patxi Iribarren Arretxea.
- Karmele Agerrea Iribarren.
- Antonio Irigoien Sarratea.
- Kontxu Agerrebere Zelaia.
- Pello Sarratea Sanzberro.
- Jose txo Gamio Etxenike.

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → APirilAREN 17AN

Euskara zeruraino ailegatu da Izarpean Oinez saioan

Iruñeko
Planetarioan
egin zen saioa

TTIPI-TTAPA

2015eko Nafarroa Oinez programazioari jarraiki, apirilaren 17an Izarpean Oinez ikuskizuna eskaini zuen Iruñeko Planetarioak. Zuzeneko musikaz lagundurik udaberriko zeruko astro eta konstelazioz nabarmenenak ikasteko aukera eman zuen saioak. Bertan izan dira, bertzeak bertze, Pello Irujo, Nafarroako Ikastolen Elkarteko Presidentea, Elena Zabaleta, Baztan Ikastolako Lehendakaria, Iosune Ortega, Baztan Ikastolako Zuzendaria eta Miren Karmele Gomez, Planetarioko ordezkaria.

Planetarioko gelarik berezienean eskaini dute "Izarpean Oinez" ikuskizuna, Tornamira aretoan zehazki.

Miren Karmele Gomezek elizondarrak eman zituen argibide-

ak: Urtaroen azalpena egin zuen, eguzkia urteko sasoiaren arabera zerumugan altuago edo baxuago ikusteko arrazoiak argitu zituen... Udaberriko zeruari musika "atmosferikoa" Jorgito & Iturria gitarrak taldeak paratu zion.

Izarpean Oinez emandira hurbildutakoek, eguneroko presa eta estresa alde batera utzi eta zerura begirada goituz, zeruaren dizdiraz gozatzeko aukera izan zuten, bai Planetario barrenean, baita kanpoan ere; saioa akituta Iparrizarra bilatzen saiatu ziren aunitz.

SORPRESA TTIPI BAT

Iruñeko Planetarioa eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak pelikula bat prestatzen ari dira. Euskarazko ekoizpena izanen da eta datorren ikasturteko Izareskolaren programazioan txeritatuko da. Marrazki bizidun pelikula izanen da, euskal mitologia eta astronomia batuko dituen ipuin batean.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Nafarroako Ikastolen Elkarteak eta Baztan Ikastolako ordezkariak ageri dira goitiko argazkian, Planetarioaren atarian. Behean, Miren Karmele Gomez eta Jorgito & Iturria gitarrak taldeko kideak.

Estreinaldia Nafarroa Oinez bestarekin batera egingen da, 2015eko udazkenean. Beraz... erne egon!

«Euskaraz lurrean eta zeruan...gure hizkuntza goitienera eramane dugu!!!» diote Oinezetik.

FLASH

Kataluniako eta Elizondoko abesbatzak

Bartzelonako Mollet del Vallès herriko Ampacanta abesbatzak eta Elizondoko Abesbatzak ahots kontzertua eskainiko dute maiatzaren 1ean 20:00etan Irurritako elizan, Daniel Gálvez eta Isabel Lacar-en zuzendaritzapean.

Udaberriko kontzertua

Elizondoko bandak, Baztango dantzariak eta Baztango Udal Musikako ikasleek Udaberriko kontzertua eskainiko dute maiatzaren 2an Lur aretoan. Sarrera doan da.

Elizondoko bestetako kartela

Elizondoko herriak Santio bestak iragartzeko kartel lehiaketa irekia deitu du. Lehiakideek beren sobreak Elizondoko Herriko Etxera igorri beharko dituzte maiatzaren 31 baino lehen. Besta Baztordeko kideek osatuko duten epaimahaiak erabakia ekainaren 9tik aitzinera jakinaraziko du. Irabazleak 300 euro eta zikiroako bi txartel jasoko ditu.

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

**CARLOS
GARAIKOETXEA
ETXENIKE**
abokatua

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

OSPAKIZUNAK → AMAIURKO FELISA IRUNGARAIK

Urteko gasna berria aurkeztu dute Udaberriko Feria egunean

Arraiozko Xunteneko bordako eta Almandozko Etxotoko ahariak irabazi dute lehiaketa

TTIPI-TTAPA

Elizondoko Udaberriko Feria egunean, ahari lehiaketaren hamazazpigarren edizioa burutu zen apirilaren 10ean. Ahari lehiaketaz gain, Gasnaren Asteari akabaila emateko Elizondoko Autxitxian gasnategian egindako urteko gasna berriaren

aurkezpena egin zen eta lehen kortinga eman zion Felisa Irungarai gasnagile erretiratuak.

Ahari lehiaketaren hamazazpigarren edizioari dagokionez, burugorrien artean, lehenbiziko bi sariak Arraiozko Xuntonekobordako Sagrario Urrozentzat izan ziren (75 eta 50 euro) eta hirugarrena Arizkongo Plazaburuko Jose Mari Gamioarentzat (30 euro).

Burubeltzen artean, lehen saria Almandozko Etxotoko Begoña Etxalarrek eraman zuen eta bigarrena eta hirugarrena Irurritako Garnuxarreko Migel Angel Ma-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Lehiaketan saritutako ahariak, jabe, antolatzaile eta udal ordezkariekin ageri dira goitiko argazkian. Behehian, Felisa Irungarai amaiurtra Autxitxiko gasna moztzen.

ritorenak. Bi kategorietako irabazleek kaikubana ere jaso zuten sar-

ritzat. Ahariez gain, bertze zenbait azienda bikain eta eder ere aur-

keztu zituzten Merkatu Plazan, behi buruak balez ere.



ARGAZKIA: ISABEL ALEMAN

Emakumearen lanari aitortza Amaiurko lixutegiaren inguruan

Amaiurko lixutegia: emakumeen lanaren aitortza izenburupean ekitaldi berezia antolatu zuen Amaiurko herriak apirilaren 18an. Beatriz Gallego Muñozek solasaldia eskaini zuen Otsondo Barride Elkartearen. Ondoren, berriki auzolanean zaharberritu den Mertzexedeko lixutegira bixita egin zuten. Lixutegian jarritako plaka agertu zuen Salaberriko Maritxu Juanikotenak, bera bezala lixutegian lanean aritu ziren emakumeen lana aitortzeko eta oroigarri gisa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Goñi eta Berho txapelkun Basaburuan

Ornozko Josu Berho eta Joseba Berhok Basaburua-Imotzeko paleta goma txapelketa irabazi dute. Apirilaren 18an Latasan jokaturako finalean, 35-26 irabazi zieten Urtxipia eta Santos-i. Hamar bikote aritu dira txapelketa honetan, eta finalean baino lan gogorragoa izan zuten finalerdian, 35-34 irabazi baitzieten Jaurena eta Mendizabal-i. Txapela ez ezik, gazta eder bana ere jaso zuten saritatzat.

BAZTAN

KULTURA → MAIATZAREN 6TIK 21ERA

Artea Oinez ekimena Arizkuneneara dator egunotan

Erakusketa ibiltariak arte mugimenduan onarpena duten 59 artisten lanak bilduko ditu

TTIPI-TTAPA

Artea Oinez 2015 egitasmoaren aurkezpena egin zen apirilaren 13an Iruñean. Artea Oinez Nafarroa Oinezaren baitan antolatutako ekimen garrantzitsuenetakoa da. Artea Oinez erakusketa ibiltariak oraingo arte-mugimenduan onarpena duten artisten lanak biltzen ditu:

margoak, serigrafia eta grabatuak, eskulturak, argazkiak... Orotara, 59 artistaren lanak, begien gozagarri. Baztango artisten eta kanpokoek lanak bat eginda. Hain zuzen maiatzaren 6tik 21era *Baztan: Barrenetik kanporat* erakusketa zabalduko da Arizkunenean.

JOSE MARI APEZETXEA

Jose Mari Apezetxea Erratzun sortu zen, 1927. urtean, eta oraindik margotzen segitzen du. Haren lanak errelitatea du oinarri, baina lizentzia hartuta abstrakzioa eramaten du begiekin ikusitakoa eta bihotzarekin sentitutakoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Artea Oinez ekimenaren aurkezpena.

Bodegoi eta erretrato gutxi batzuk margoitu baditu ere, paisaia da Apezetxearen koadroetan agertzen dena: Baztango paisaia.

Euskal margolarien artean nortasun berezia eta ibilbide luzea du Apezetxeak eta hori guztia aintzat hartu nahi du aurtengo Artea Oinezek. «Etxean ditugu ereduak, kemena eta ohorea. Jose Mari Apezetxea omenduko du aurtengo edizioak, hark urte luzez erakutsitako edertasunaren ondainez. Keinu ttipia da gurea, berak emandako guztiaren aldean».



ELIZONDON, 30TSIKO UZTAILAREN 19AN
BAZTANEN EDUKIARA BARRA-BARRA

Juan Angel Perotxenaren kartelak iragarriko du Baztandarren Biltzarra

Uztailaren 19an Elizondon ospatuko den Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketaren irabazlea aukeratu dute antolatzaileek. Elizondoko Juan Angel Perotxena da egilea eta *Puxkeka* izenpean aurkeztutako lana izan da antolatzaileen artean bozkatuena. Lehiaketara 30 lan aurkeztu dira eta Baztandarren Biltzarrak eskerrak eman nahi dizkie parte hartzaileei. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du Baztandarren Biltzarra egunean. Bertzalde, uztailaren 20tik aitzinerat, parte-hartzaileek beren kartelak berreskuratu ahal izanen dituzte.

MAIATZAREN 22 ETA 23AN

Asteburu berezia antolatu dute Gartzainen

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 22tik 23ra ospakizunez betetako asteburu berezia antolatu dute Gartzainen.

ORTZIRALA, MAIATZAK 22

- 20:00etan Mus txapelketa.

LARUNBATA, MAIATZAK 23

- 11:00etan ibilaldia.
- 14:00etan bazkaria.

- 16:30ean haur jokoak eta ondotik txokolatada.
- 21:30ean bertso afaria: Julio Soto Nafarroako txapelduna eta Andoni Egaña handia arituko dira kantari. Txartelak maiatzaren 3tik 7ra Elizondoko Saioa eta Gartzaiango Frantsene ostatueta izanen dira salgai. Oharra: Txartelak ez dira dataz kanpo ezta telefonoz salduko.



BIRZIKLATZE SISTEMAK HUTS EGITEA NAHI EZ BADUZU

BEREIZI!

HAUEK DIRA **EDUKIONTZI**
HORIAN SARTU BEHAR DITUZUN
ONTZI ARINAK

BAI

PLASTIKOZKO ONTZI ETA BOTILAK



Plastikozko botilak (ura, gaseosa, olio, ozpina...), plastikozko boteak, janarien plastikozko poltsak, produktu izoztuenak...

Plastikozko
ontziak, latak
eta brikak

Hutsak eta janari
hondarrik gabe
sartu behar dira
edukiontzian

ONTZI METALIKOAK



Edarien latak, kontserba latak... aluminiozko azpilak eta ontzitxoak, janariekin datozen aluminiozko poltsak...



www.baztangoudala.eus




www.malerrekakomankomunitatea.com



www.bortziriakzabor.com

BRIK ONTZIAK



Brik ontziak
(zukuak, esnea,
arrautza likidoa,
ardoa...)



ECOEMBES

www.ecoembes.com

URDAZUBI

GIZARTEA → HAUTESKUNDE AITZINEKO BISITA

Egiteko gelditu diren lanen berri eman dio Udalak Gobernuari

Jose Javier Esparza kontseilaria eta UPNko presidentegaia etorri zen

TTIPI-TTAPA

Urdazubiko garapenerako beharrezkoak diren eta egin gabe gelditu diren lanen berri eman zion apirilaren 15ean Santiago Villares alkateak Nafarroako Gobernuo Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilaria eta Nafarroako Parlamenturako hauteskunderarako UPNko presidentegaia den Jose Javier Esparzari.

Apirilaren 15ean bixitan etorri zen kontsei-

laria Dantxarinear eta alkateak gogorarazi zion oraindik kobratzekoak daudela zenbait auzotara egindako bideen lanen dirulaguntzak, baita Hiribere, Landibar, Alkerdi, Larrainta, Telleria, Leorlas eta Koilar auzotako argiteriarenak ere.

Urdazubiko Udalak 2011n egin zituen Hiribere auzoko saneamendu lanak NILSAK akitu ditzan ere eskatu zion Villaresek Esparzari.

Bertze aldetik, alkateak gogorarazi zuen 2011n udalak Toki Administrazio departamentuari aurkeztutako hornidura proiektua geldirik dagoela. Proiektu horretako saneamendu sareak Dantxarinear aurreikusia dagoen hazkundeari aurre egin nahi dio. Hain zuzen, A-



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Gobernuo ordezkariak eta udaletxeoak, Dantxarinear.

retxea bentaren eta Javier Martikorenaren bentaren eraikuntza la-

nak ere ikusi zituen kontseilariak hauteskunde aitzineko bixitan.

Udalerako hautagaitza bakarra Zugarramurdin

TTIPI-TTAPA

Ez da aldaketa handirik herrian udalerako aurkeztu duten zerrendan. Gaur egun alkate den Lazaro Dainziari ere bost izenen artean ageri da lanerako prestu agertu den taldean.

ZUGARRAMURDI

AKELARRE

1. Lazaro Dainziari Iribarren.
2. Jose Jabier Zubillaga Camino.
3. Evaristo Mentaberri Mihura.
4. Juan Miguel Ariztegi Etxenike.
5. Manuel Soto Rodriguez.

URDAZUBI

AZKAR


Santiago VILLARES OTEGI

2. Domingo Iribarren Larralde.
3. Ignacio Ariztia Urriza.
4. Cristobal Alzuiet Martin.
5. Severo Galarregi Blanco.
6. Juan Ignacio Arzoiz Erreka.
7. Cecilia Marilyn Grilleres.

URDAZUBI ELGARREKIN


Iñigo IMAZ MARTINEZ

2. Daniel Elizalde Kariika.
3. Anastasia Biddart Organbide.
4. Maria Mitxelena Irigoien.
5. Martin Arrieta Tapia.
6. Ane Huarte Ariztia.
7. Iratxe Ariztia Danboriena.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA · TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinearatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

ZUBIONDO
Jatetxea

sagar-dotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

TEL: 948 625 472

ORBELA
SENDERSMA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

ANTZUZELAI
S.L.

ZINTARRIAK · ADOKINAK · ZOLAK
Tel. 948 631 317 · Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com

Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, ertalzak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

KULTURA → 'ELEMENTUAK' GOIBURUAREKIN

Kalakan hirukoteak diska berria plazaratu du

Sarako lezeetan egin zuten aurkezpena eta Herri Urratsen ere joko dute

Franck DOLOSOR

Elementuak Kalakan hirukotearen diska berria bi urteko lanaren fruitua da. 14 zati biltzen ditu, ohiturakoak batzuk, berriak bertzeak. *Bereterretxen kantorea*, *Ikusten duzu goizean*, *Montebideoko berriak* eta halako kantu tradizionalen ondoan, *Kantuz* eta *Sagarra jo!* ere agertzen dira. Pierre Bordazarre *Etxahun Iurri-ren Ama Euskadi* eta *Lo hadi aingüria* atxemanen ditu entzuleak diska hortan, baina baita taldeko kideek sortu dituzten doinu berriak ere. Hiru taldekideen ahotsez gain, perkusio tresnak ere entzuten dira lan berrian: txalaparta, alboka, eta txirula, bertzeak bertze. Thierry Biscary, Xan Errotabehere eta Jamixel Bereau senperraren ustez kantu zaharrek oihartzuna dute gaurko egunean ere XV. mendeko drama bertsuak gertatzen direlako 2015ean ere. Sarako lezeetan egin zuten aurkezpen publikoan, hiru artistek garbi utzi zuten oraingoz zuzeneko emanaldietan bakarrik salduko dutela diska berria. Duela bi urte gaitzeko ospea erdietsi zuten hiru musikariek 7 hilabetez 88 kontzertutan

parte hartu baitzuten munduan barna Maddonnarekin. Azken bi urteetan herriz herri ibili dira beren aldetik, baina artisauntzat baitute beren burua, denbora hartu nahi izan dute *Elementuak* behar den bezala osatzeko eta lantzeko. Ondoko egunetan zombait emanaldi eskainiko ditu Kalakan hirukoteak: Herri Urratsen maiatzaren 10ean; Laasen 15ean, Zumarragan 16an; Senperen 22an; Alsasuan 30ean eta Senpereko elizan ereiaroaren 28an, herriko besten karietari. Xehetasun gehiago: www.kalakan.fr

Henri Duhauren lan berria

Erretiroa aspaldi hartu zuen Henri Duhaueuskaltzaleak baina ez da sekulan geldirik egoten. Euskaltzaindiaren eskutik zortzigarren lana plazaratu du berriki Sarako idazleen biltzarren karietarat: "Bahar deitu Salbaiak" itzulpenaren egokitzea, hain xuxen. Pierre Dorisboure misionest beskoiztarrak idatzi zuen liburu hau eta 1929an Jean Elissalde apezka, Zerbitzari izengoitiarekin ezaguna den azkaindarrak itzuli zuen euskararat. Lehen edizioa 1870ekoa da baina gerotzik berredizio andana izan du. Duhauek dioenez "Salbaiak" izendatze horrek gure gaurko beharrik jotzen ditu, baina noizbait oharatu zen ez zela baitezpada mesprexuzko hitza,

ez bada ere laudoriozkoa, hots, denbora haietako izendatze bat zela Asiako edo Afrikako jende xeheaz hitz egitean.

Duhauek dio "are hobeki" onartu zuela irakurri zuelarik, Dourisboure beraren hitzetan, nahiago zuela 'salbainen' artean bizi. "Itzulpena Lapurdiko euskararen egin lan eder bat dugu" Duhauren erranetan. Itzultzaile-egokitzaileen hitzetan historiaren ezagutzea beharrezkoa da eta arbasoen urrats baliosenei leku gehiago eman behar zaie. Henri Duhauek badaki irakurleen kopurua ez dela baitezpada haunditzen eta internetek gero eta toki gehiago hartzen duela. Idazle-lan gile neke ezin argi du sarerat jauzi egin behar duela eta beraz lan sail ederra hasi behar duela laster.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jamixel Bereau eta Madonna, panderoa joz.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Henri Duhauek bere lan berria aurkeztu du.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Sua Luberrian

Suhiltzaileek lan handia izan zuten gan den apirilaren 14an sua itzaltzeko Luberriko baradera eta Biperrerbordako bide artean. Toki malkartsuan piztu zen suak zombait larre erre zituen baina zorionez ondoan diren etxeetan ez zen makurrik izan.

SARA

GIZARTEA → APIRILAREN 11N

Korrikaren inguruko ikusgarri polita eskaini dute Olhaingo ikasleek

